


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# AHOZKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA

## GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)

EGILEA: Villar Martinez, Agurtzane

ZUZENDARIA: Reguero Ugarte, Urtzi

2018/2019

## **LABURPENA**

Lan honen helburua hizkuntzaren garrantzia Haur Hezkuntzan aipatzea eta horren ondorioz, umeei hizkuntza gaitasuna eraikitzeke baliabideak/teknikak aurrera eramatea da. Horretarako, hizkuntzaren jabeakuntzaren inguruko hausnarketa egingo da, non bertan eragina duten faktoreak eta hizkuntzaren jabeakuntza indartzeko jarraibideak garatuko diren.

Bestalde, ahozko hizkuntzari garrantzi handia emango zaio txosten honetan. Izan ere, umeei ahozko hizkuntzaren bidez, lehenengo kontaktua dute hizkuntzarekin eta Haur Hezkuntzan ahozko hizkuntza ezinbestekoa da umeei sozialki garatzeko (nahiz eta eskoletan ahozkoari garrantzi handia ez eman). Horren ondorioz, irakaslearen rola ahozko hizkuntzaren didaktikan eta hizkuntza baten ahozkoa lantzeko prozesua jorratuko dira. Horrez gain, umeei ahozkotasuna bereganatzeko etapak edo garapena aurrera eramango dira.

Azkenik, esku artean duzun lan honetan, Haur Hezkuntzako umeei ahozkotasuna lantzeko hainbat proposamen eskaintzen dira, zeinak berritzaileak izango diren; hau da, ahozkotasuna modu dibertigarri batean ikasteko aukera emango da, umeei garapenean ahozkoari garrantzi handia emanez.

## **RESUMEN**

El objetivo de este trabajo es hacer referencia a la importancia de la lengua en Educación Infantil y, por consiguiente, llevar a cabo técnicas y/o recursos para que los niños y niñas desarrollen la competencia lingüística. Para ello, se realizará una reflexión sobre la interiorización del lenguaje donde se nombrarán los factores que influyen en el desarrollo de la lengua.

Por otra parte, a la lengua oral se le dará la gran importancia en este informe puesto que los niños y las niñas por medio de la lengua oral, tienen el primer contacto con la lengua y, además, en Educación Infantil la lengua oral es necesaria para que se dé el desarrollo social de los alumnos y alumnas (pese a no dar la gran importancia al oral en las escuelas/clases). Por lo tanto, se tratarán el rol del profesor en la didáctica de la lengua oral y el proceso de la misma en Educación Infantil. Además, se explicarán las etapas en las que los niños y niñas desarrollan el lenguaje oral.

Por último, se harán diferentes propuestas para trabajar la oralidad en la Educación Infantil de una manera innovadora y divertida.

## **ABSTRACT**

The objective of this work is to demonstrate the importance of language in Early Childhood Education and therefore carry out techniques and resources for children to develop language skills. In order to do this, a reflection on the embrace of language will be made where the factors that influence the development of the language will be named.

Furthermore, oral language will be given great importance in this report due to the children through the oral communication have the first touch with the language and in Early Childhood Education oral language is necessary to guarantee the social development of the students (even though in classrooms it is not given enough importance). Thus, the role that plays the teacher in teaching of the oral expression.

Finally, different activities will be done to work orality in Early Childhood Education in an innovative and entertaining way in which great importance will be given to the oral communication.

## AURKIBIDEA:

1. Sarrera.....	4
2. Gaiaren justifikazioa.....	4
3. Hizkuntzaren garrantzia/beharra Haur Hezkuntzan.....	5
4. Ahozko hizkuntza, hizkuntza menperatzeko tresna.....	6
4.1 Eskolaren garrantzia ahozkotasunaren garapenean.....	7
4.2 Interakzioaren eta testuinguruaren garrantzia.....	8
4.2.1 Irakaslearen hizkuntzaren garrantzia (rola).....	10
5. Umearen ahozko hizkuntza.....	12
5.1 Ahozko hizkuntza barnertzeko etapak.....	13
6. Ahozko hizkuntza garatzeko errekurtsoak/ariketak.....	14
7. Proiektuaren helburuak. Curriculum-ak zer dioen.....	16
8. “Ahozkotasuna, mundu bat” proiektua.....	17
8.1 Partaideak.....	18
8.2 Proposamenaren deskribapena.....	18
8.3 Proiektuaren garapena .....	22
9. Ondorioak.....	33
9.1 Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	36
10. Erreferentziak.....	38
11. Eranskinak.....	41

## **1. Sarrera**

Guztiok dakigun moduan, hizkuntza umeez txikitatik barneratzen duten gaitasuna da. Hala ere, nahiz eta honek duen garrantzia handia izan, irakaskuntzan izan beharreko garrantzia ez duela esan daiteke, batez ere ahozko hizkuntzaren irakaskuntzak. Ondorioz, lan honen helburu nagusia Haur Hezkuntzan ahozko hizkuntza sustatzeko baliabide eta teknika ezberdinak (berritzaileak) aurrera eramango dira.

Jarraian, txosten digital honen egituraren berri emango da. Hasteko, gaiaren justifikazioa jorratuko da non irakurlea testuinguruan jarriko den. Ondoren, marko teorikoari ekingo zaio, non ahozko hizkuntzari erreferentzia emango zaion. Ahozko hizkuntza txosten honen oinarria izango da. Izan ere, lan honen helburua irakurleak ahozkotasunaren garrantziaz jabetzea izango da. Horretarako, ahozko hizkuntzari lotuta doazen hainbat puntu aurrera eramango dira. Lehenik eta behin, ahozkotasunaren garrantziaz hitz egingo da. Halaber, eskolak ahozkotasunaren irakaskuntzan duen garrantzia eta interakzioaren eta testuinguruaren balioa aurrera eramango dira. Horrez gain, gaitasun hau ondo garatzeko irakasleak kontuan izan beharreko estrategiak azalduko dira. Gero, umearen ahozko hizkuntzaren garapenari erreferentzia emango zaio, non hori bereganatzeko baldintzak eta gaitasunak agertuko diren. Azkenik, ahozko hizkuntza garatzeko errekurso/ariketak garatuko dira.

Marko teorikoa behin azalduta, proposamen didaktiko/praktikoari ekingo zaio. Bertan, ahozko hizkuntza lantzeko hainbat ariketa aztertu eta aurrera eramango dira 237/2015 Dekretua kontuan izanda.

Azkenik, ondorioen eta hausnarketaren berri emango da, non lanaren mugak, hobetzekoak eta abar agertuko diren.

## **2. Gaiaren justifikazioa**

Hasteko esan beharra daukat GRAL honetan ahozko hizkuntzaren didaktika gaia moduan aukeratzea erabaki dudala, alde batetik, ahozko hizkuntza hizkuntza barneratzeko ezinbestekoa den tresna delako eta horren bidez, umeez haien arteko eta irakasleekiko komunikazioa garatuko dutelako, elkarrizketan gero eta trebeagoak izanez. Bestalde, gaur egun ahozko hizkuntza eskolan lantzeko zailtasunak daudela uste dudanez, ahozko hizkuntza irakasteko/ikasteko beste teknika berritzaileekin esperimentatzea gustatuko litzaidakelako hautatu dut gai hau.

Horrekin loturik, Haur Hezkuntzan ahozkoa lantzea garrantzitsua dela deritzot hainbat alderdiengatik. Hasteko, eskolan ikasketa egokia izaten lagunduko dielako haurrei eta hitz egiten eta modu aktiboan parte hartzen ikasiko dutelako. Horrez gain,

haurrek hizkera formala eta informala bereizten jakingo dutelako. Halaber, ahozkoak abstrakzioan eta kontzeptualizazioan laguntzen du eta hizkuntza testuinguru gabe erabiltzeko aukera ematen du. Halaber, iraganeko gertaerak, behaketen emaitzak eta norberaren bizipenak kontatzeak, testuingurutik kanpoko hizkuntza erabiltzen laguntzen duelako.

### **3. Hizkuntzaren garrantzia/beharra Haur Hezkuntzan**

Hizkuntzaren garapena eta ikaskuntza Haur Hezkuntzan oso garrantzitsua den ezagutza da. Izan ere, etapa honetan umearen nerbio-sisteman aldaketa ugari gertatzen dira zeinek hizkuntzaren asimilazioan laguntzen duten. Ondorioz, familia kideak, irakasleak eta umearen bizitzan parte hartzen duten pertsonak plastikotasun zerebral hau ondo erabili behar dute umea modu linguistiko batean estimulatu ahal izateko. Horrela, umeak ondo hitz egiten ikasi eta testuinguru ezberdinetan hizkuntzaz baliatzen jakingo du (Castañeda,1999).

Umeek hizkuntzari esker, gaitasun linguistikoak bereganatzen dituzte hizkuntza bera hitz egiten duten eta gaitasun linguistikoa duten beste pertsonekin (familia kideak, irakasleak) interakzioan aritzen direnean. Halaber, hizkuntza instrumentu konplexu bat da, hau ondo barneratzeko umeak hizkuntzaren aspektu semantiko, sintaktiko, morfologiko, fonetiko, pragmatiko eta testualak menperatu beharko ditu-eta (Bigas, 2008).

Hizkuntza umearen garapenean oso garrantzitsua denez, Ruiz-Bikaindik (2009) hizkuntzaz jabetzeko hainbat faktore garrantzitsu aipatzen ditu: kalitatezko komunikazio-trukeetan parte hartzea non elkar ulertzea bermatuko den. Halaber, komunikazio ona izan dadin, ezinbestekoa da arreta etengabea jartzea ikasleak esan nahi duenari. Horrez gain, ikasleen interesetik abiatzea gaia aukeratzeko orduan eta sasi-solasak saihestea komenigarria da ulermena eta mintzamina garatzeko. Azkenik, irakasleek elkarrizketarako aldaketak menderatu behar dituzte: argibideak eskatzea, parafraasiak, hedapenak, eta abar eta irakaslearen hizkuntza-zuzentasunak ikasleen hizketa baldintzatzen.

Hizkuntzak umeen garapenean duen garrantzia behin azalduta, aipatzekoa da Haur Hezkuntzako etapan (0-6 urte) gehienetan idazmenari ematen zaiola gehiegizko inportantzia, ahozko hizkuntza alde batera utziz, askotan pentsatu baita ahozkotasuna irakaskuntzarik gabe garatu egiten dela (Vilá eta Castellá, 2014). Horregatik, segidan jorratuko diren puntuak ahozko hizkuntzaren ingurukoak izango dira.

#### 4. Ahozko hizkuntza, hizkuntza menperatzeko tresna

Ahozko hizkuntza 1990eko hamarkadan sartu zen Espainian, Haur Hezkuntzako curriculumean. Izan ere, ordura arte ez zitzaion ahozko hizkuntzari garrantzi handirik ematen. Memento horretan ahozko hizkuntzaren didaktika eskolan ezinbestekoa zela baieztatu zuten arrazoi ezberdinengatik. Hasteko, Haur Hezkuntzako etapa (0-6 urte), umeen ikaskuntzarako ezinbestekoa den etapa izanda, hizkuntzari esker umeek ezagutza asko bereganatzeko aukera dute eta. Halaber, pentsamendua garatzeko, errealitatea planifikatzeko, ulertzeko eta egoera ezberdinei aurre egiteko ezinbestekoa den tresna delako. Azkenik, umeek etorkizunean ahozko hizkuntzaren erabilera barneratuta izan beharko dutelako diskurtsoa testuinguru ezberdinetan ondo aplikatzeko (Bigas, 2008). Nahiz eta ahozkotasanak gaur egun eskoletan garrantzia izan, izan beharreko garrantzia ez duela eta baliabide ezberdinak eta baliagarriak ez dituztela erabiltzen uste dut. Ondorioz, hurrengo lerroetan umeek ahozko hizkuntzaren garrantzia islatuko da.

Ahozko hizkuntzak umearen garapenean garrantzi handia izanda, Castañedak (1999), Piageten (1965) lanean oinarrituta, honako hau esaten du: *“el niño adquiere, gracias al lenguaje, la capacidad de reconstruir sus acciones pasadas en forma de relatos y de anticipar sus acciones futuras mediante la representación verbal”*. Horren ondorioz, esan daiteke hizkuntzaren garapena ezinbestekoa dela Haur Hezkuntzan.

Jarraituz, ahozko hizkuntza, beharrak, pentsamenduak, sentimenduak eta emozioak adierazteko ezinbestekoa den tresna da. Halaber, beste ezagutza asko barneratzeko, espazioan eta denboran gure burua kokatzeko eta ingurunearekin komunikatu eta honi egokitzeko ahozko hizkuntza oso garrantzitsua da (Castañeda, 1999).

Ahozko hizkuntzarik gabe, gizakiok harremanak izateko zailtasunak agertuko lirateke. Izan ere, ahozko hizkuntzari esker, besteekin komunikatzeko aukera gehiago daude (Salvador, 1996). Horrez gain, ahozko hizkuntza inteligentziaren garapena emateko eta ezagugarriak diren ariketak aurrera eramateko tresnarik garrantzitsuena da (Bruner, Watson eta Premat, 1986). Era berean, Del Ríok (1993) Haur Hezkuntzan ahozko hizkuntzaren garrantzia aipatzen denean, hiru arrazoiengatik izaten dela baieztatzen du: hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko harremanagatik, hizkuntzak kulturarekin egiten duen transmisioagatik eta azkenik, hizkuntzak arlo sozialean duen garrantziagatik.

Hizkuntzak besteekin komunikatzen eta harremanetan jartzen laguntzen digu adierazpenaren eta mezuen ulermenaren bidez; hau da, hizkuntza pertsona orok komunikatzeko dugun gaitasuna da, zeinaren bidez ahozkotasanaren seinale ezberdinak barneratu eta horiek besteekin erabiltzen ditugun. Horren ondorioz, hizkuntza ez da bakarrik soinu ezberdinak ahoskatzea esaldi edo hitzak osatzeko, baizik

eta besteekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko. Halaber, umeak hizkuntzaren bidez komunikatzeaz gain, bere iragana ezagutu, ikertu, interpretatu, orainaldia ulertu eta horren ondorioz, bere etorkizuna proiektatu dezake (Galván-Boaira, 2015).

Bestalde, ahozko aztertasuna garatzeko, konpetentzia edo gaitasun komunikatiboa landu behar da. Cabrera, Itaca eta Nadasen (2015) ustetan, gaitasun komunikatiboa barneratzeko honako konpetentzia hauek landu behar dituzte: Konpetentzia gramatikala (morfologia, fonetika eta hiztegia. Konpetentziarik garrantzitsua da, zeinaren bitartez beste konpetentziak garatzen diren), konpetentzia soziolinguistikoa (hizkuntza testuinguru ezberdinetan moldatzeko gaitasuna izatea) eta konpetentzia diskursiboa (ahozkotasun diskurtsoa osatzeko gaitasuna izatea testuinguru eta egoera ezberdinetan).

#### **4.1 Eskolaren garrantzia ahozko aztertasunaren garapenean**

Del Rioren (1993) ustetan ahozko hizkuntza Haur Hezkuntzako etapan aurrera eramatea eta eskolak horretan laguntzea ezinbestekoa dela uste du:

Trabajar el lenguaje oral en la escuela es imprescindible ya que algunos aspectos de la lengua oral necesitan intervención educativa formal para ser aprendidos. La escuela no puede aludir esta responsabilidad, si quiere realmente dar a todos sus alumnos las mismas oportunidades y ayudarlos a desarrollar al máximo sus capacidades. Las desigualdades que manifiestan a los niños respecto a las habilidades comunicativas puede ser causada por una pluralidad de factores. Algunos tienen que ver con la procedencia cultural y social de los niños. Pocas cosas diferencian tanto a unos jóvenes de otros como la capacidad expresiva oral, discriminando negativamente a los que dan muestras de un lenguaje pobre. La escuela puede y creemos que debe ser el factor de compensación y nivelación de estas desigualdades.

Halaber, eskolaren betebeharra oinarrizko teknika eta kultura-jakintzak eskuratzeko beharrezko sistema psikiko berriak osatzen laguntzea da. De Pietro eta Dolzen (1997) aburuz, eskolaren helburua ikasleen gaitasunak garatzeaz gain, horien inguruko praktika sozialak ulertzeko laguntza ematea ere (Idiazabal eta García, 2006).

Horrez gain, umeen komunikazioa sustatu dadin, oso garrantzitsua da eskolan zein etxean edota beste testuinguruetan komunikatzen ikastea. Horretarako, irakasleek ezin dute ahozko hizkuntzaren aspektu formal edo estrukturala kontuan hartu bakarrik (haien helburua ez da izango bakarrik umeak hiztun onak bihurtzea), baizik eta umeen gaitasun edota trebetasunen garapena kontuan hartu behar dute. Modu horretan, umeak hiztun "konpetenteak" bilakatuko dira (Del Río, 2016).

Bestalde, askotan pentsatu izan da ahozko hizkuntza txikitatik barneratu egiten dela irakaskuntzarik gabe eta horrek eskolara bere ekintzak idazmenean oinarritzera bidali du (Vilá eta Castellá, 2014). Horrez gain, idatziak gure munduan izan duen garrantzia



eta hura ikasteko ikasleek duten zailtasunak direla eta ahozketasuna alde batera utzi eta idazmena hezkuntzaren fokoa gisa jarri izan da (Sánchez- Cano, 2001).

Aurrekoan esandako kontuan hartuz, argi dago eskolan ahozko hizkuntza lantzeko ariketa ezberdinak bultzatu behar direla. Sainz, Ozaeta, eta Garroren arabera (2009), hitz egitea oso garrantzitsua da ahozketasuna ondo barneratzeko. Horrez gain, ahozko testuak lantzeko aukera eman behar du eskolak. Hala ere, ahozko testuak lantzen ditugunean, bertan ahozketasunaren alderdi batzuk bakarrik irakasten ari direla eta horren ondorioz, garrantzitsua izango litzateke beste motatako ariketak burutzea ahozketasunaren gaitasun guztiak garatzeko asmoarekin.

#### **4.2 Interakzioaren eta testuinguruaren garrantzia**

Umearen ahozketasuna ondo garatzeko, besteekin duen interakzioak eta honen testuinguruak garrantzi handia dute. Alde batetik, umeak interakzionatzen duen pertsonen (familia eta eskola) maila sozial eta kulturala handia izanez gero, honek ahozko hizkuntza hobetu barneratuko du. Bestalde, familia kideen antolamendua oso garrantzitsua da, hau da, haien artean duten harreman kualitatibo eta kuantitatiboa (Bigas, 2008).

Ahozko hizkuntzari dagokionez, hizkuntza lantzeko erabilera aberatsak eta askotarikoak modu sistematikoan eta planifikatuan zehaztu eta gelaratu behar dira interakzio ezberdinak bilatuz. Erabilera aberatsak eta askotarikoak azpimarratu eta kontuan izan behar ditugu. Izan ere, batzuetan, eskola eremuak daukan zereginaren berezitasunari esker, hizkuntza erabilerak oso mugatuak, artifizialak eta gehiegi sinplifikatuak izaten dira (Novoa, Otero, García eta Casado, 2011).

Halaber, esan beharra dago Haur Hezkuntzako geletan askotan arazoa izaten dela irakaslearen gehiegizko parte-hartzea. Ondorioz, Huarte eta Ozeinjuregi-k (2012) dioten moduan, irakasleak ziurtatu egin beharko luke interakzioa partaide desberdinen artean gertatuko dela. Hortaz, alde aurretik ezarri dituen helburu linguistiko eta komunikatiboekin batera, haurren parte hartzea zein interakzio motaren bitartez lortuko den aurreikusi beharko luke. Horretarako, talde handietan eta txikietan ahozko hizkuntza bultzatu behar da.

Talde handiari dagokionez, honen alde onak asko dira, talde sentimendua indartzea, taldean bakoitzak daukan rola eta bakoitzak ekartzen duena azpimarratzea, ikuspuntuak trukitzea, eta abar. Hala ere, egoera horietan, zaila da ikasleen parte hartzea kudeatzea. Hiztunak direnak elkarrizketaren protagonismoa bereganatuko dute sarritan eta ondorioz, zaila da ume guztiek parte hartzen dutela ziurtatzea. Halaber, talde handian zailagoa izaten da umeen arreta mantentzea. Horretarako, egun bakoitzean

parte hartuko duten umeak aldez aurretik aukeratuko lirateke. Modu horretan, ikasle guztien parte-hartzea ziurtatuko litzateke (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012).

Talde txikian interakzioa sustatzeari erreparatuz, aurretik esandako guztiagatik, garrantzitsua da talde handian ez ezik, momentu batzuetan ikasleak talde txikiagoetan ere antolatzea klasea. Ikasleek talde handian egiten duten hizkuntzaren erabileran oinarrituta, talde homogeenetan batzea erabaki genezake, beti ere jardueraren zailtasunaren arabera eta ezarri diren helburuak eta landuko diren gaitasunak kontuan izanda. Taldeak modu homogeenetan antolatzeak baditu abantailak: ume batzuen protagonismoa saihestuko dugu eta hain berbaldunak ez diren umei jardueran modu aktiboagoan parte hartzeko aukera gehiago emango diegu eta, horrela, hizkuntza gaitasunak lantzeko egoera egokiak sortuko ditugu (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012).

Jarrantuz, Haur Hezkuntzan hizketa planifikatzearen alderdi garrantzitsu bat denborak eta espazioak banatzea da, ikasleei testuinguru argiak eta ahozko hizkuntza modu sintetikoan ulertzeko eta esperimendatzeko aukerak emateko. Horregatik, Tabors eta Snow-k (1994) interakzioa sustatzeko hainbat jarraibide ematen dituzte: antolamendu-egitura sendo eta errutina bihurtua (jarduerak tarte erregularrean doaz) eta hizkuntza ingurune aberatsa non irakasleek ulermen- zein ekoizte-trebetasunak suertatzen dituen mintzaira erabiltzen baitute

Bestalde, irakaskuntzari dagokionez, irakaslearen helburua umearen aurrerabide eta zailtasunak argi identifikatzeko baliagarria den esku-hartzea/interakzioa gelan bideratzea da. Hori ondo egiteko ezinbestekoa da hizkuntzaren arloko helburu eta edukiak zehatzak eta objektiboak izatea. Bestalde, irakasleen esperientziaren ondorioz garatzen den intuizioa garrantzitsua da, baina hori ez da nahikoa; hau da, irakaslearen papera oso motibagarria izan behar da eta umeen interesetatik abiatu beharko da. Horrela, interakzio positiboak garatuko dira (Nunan, 2012).

Irakasleak hizkuntzaren erabilera estrategikoa hartu dezake umea ezagutzara bideratzeko eta umei ezagutza deskubritzen laguntzeko. Interakzio horietan, hizkuntza ezagutza bideratzeko tresna izango da. Huarte eta Ozerinjauregiren (2012) aburuz, arloa eta hizkuntza bateratzeak ekar ditzakeen erabilera batzuk honako hauek dira: aurrezagutzak adierazi eta hipotesiak egin, zalantzak kanporatu, proiektu baten gaineko asmoak adierazi ekintzak arrazoitu eta justifikatu, kausa-ondorioa loturak egin, gertaera eta ekintzen gaineko usteak azalatu, egiten ari dena bideratu ulertzen ez dena galdetu, proiektu baten gaineko asmoak adierazi, objektu baten ezaugarriak adierazi, iritziak arrazoitu gertatutako zerbaiti buruzko iritzia adierazi, eta interakzioaren bidez gidatu.

Horrez gain, irakasleak zer nolako interakzioak sustatzen dituen jakitea oso garrantzitsua da: zer nolako praktikak jorratzen dituen, horiek baliagarriak diren edo irakaskuntza oztopatzen duten, horiek umeen erritmoetara egokitzen diren edo horren helburua ezagutza horiek presio handiarekin barneratzea den eta irakaslea ume bakoitzaren erritmora egokitzen den edo umeak irakasleari egokitu behar diren (Ituero eta Casla, 2017).

Gainera, irakasleak irakatsi behar duen ahozko hizkuntzak umeen jarrerarekin harremanetan egon behar du, horrela umeek ulertu, pentsatu eta guk esan dugunaren inguruan erantzun bat bilatzen dutelako (del Rio, 2016). Irakasleek ahozko hizkuntza irakasterako orduan, haien ezagutzak zabaldu behar dituzte, zer eta nola irakatsiko duten jakin ahal izateko. Halaber, ahozko hizkuntzaren kompetentziaren garapenak hizkuntzaren arloa berriro definitzea suposatzen du (Nunan, 2012).

#### **4.2.1 Irakaslearen hizkuntzaren garrantzia (rola)**

Irakasleek hitza nola erabiltzen duten jakitea eta hitzaren gainean kontrol handia izatea oso garrantzitsua da umearen ahozko hizkuntza sustatzeko. Irakasleak ikasle guztiak elkarriketan parte hartzeko ardura du, estrategia ezberdinak erabiliz. Halaber, ezinbestekoa da umei hipotesiak formulatzea, lortu dutena azaltzea eta lehen esan bezala, galderak egitea (Cabrera, Palmer eta Nadas, 2015).

Horrekin lotuta, Ruiz-Bikaindi-k (2009) irakaslearen ahozko hizkuntzaren garrantzia aipatzeaz gain, honen komunikazioak hainbat funtzio bete behar dituela jakitera ematen du: segurtasun afektiboa eskaini, ikasleen hizkuntza-eta berbaldi-ariketaren eredu ematea, haur guztiak eta bakoitzaren hizketan jartzea, haurraren parte hartzea kudeatu, eztabaidatzen eta gogoeta egiten laguntza eskaini eta hizkuntzaren erabilerari buruzko hausnarketa egitea. Horrez gain, ikasgelako jarduerak antolatzea, taldeak, espazioak, denborak, eta abar eta jokabide arauak ematea.

Bestalde, irakaslearen jokabidea ezinbestekoa da haurren hizketa sustatzerakoan. Joan Tough (1989) zenbait estrategia eraginkor biltzen ditu, irakasleek haurrekin erabiliak, haien interesa harrapatzen duen ariketa baten inguruan: orientazio-estrategiak (irakasleak gai ezberdinak proposatzen ditu eta zertaz hitz egin orientatuko du baina umei aukera askoren artean hautatzeko aukera eman behar dio), errazteko edo laguntzeko estrategiak (haurrak bere berbaldiak hartu duen bidea sakonago aztertzea dute helburu, arrazoibidean eta hizketan argiagoa eta konplexuagoa izatea), informazio estrategiak (irakasleak egoera/gertaera ezberdinak laburtu, kontatu, konparatu eta abar egiten du umei pentsatzeko ereduak emateko) eta sostengu estrategiak (ikaslearen

parte-hartzea bultzatzeko irakasleak erne entzun eta arreta handia jarriko dio umeak esandakoari).

Era berean, Sánchez-Canok (2001) estrategia ezberdinak proposatzen ditu ahozko hizkuntza sustatzeko. Hasteko, aurrezagutzak detektatu eta horiek prozesuan kontuan izango ditu irakasleak. Modu horretan, umearen interesak kontuan hartuko ditu. Horrez gain, umeak hizkuntzarekiko dituen hurbilpenak ulertu eta baloratuko ditu (nahiz eta hauek egokiak ez izan) horrek umearen motibazioa sustatuko du eta. Horrez gain, umeen interbentzioak eskuratu eta hauei feedback-a emango die eta laguntza eskainiko die beharrezkoa denean (beharrezkoa ez denean kendu). Azkenik, irakasleak esaldi motzak erabili beharko ditu (esaldi hauen egitura sinplea izan behar du), intonazio egokia jarriko du eta umearen testuinguruan dauden gaiak erabiliko ditu umearekin komunikazioa ahalbidetzeko.

Estrategia horiek aurrera eramateko, ikerketa batzuen bidez frogatu egin da, hizkuntzaren jabekuntzan oso garrantzitsua dela galdera asko egitea horien bidez, umeek hizkuntzaren maila handiagoa lortu egiten dutelako (Marisca, 2010). Hala ere, komenigarria da galdera gehiegi ez egitea umeek ezin izango dutelako galdera guztiei erantzun bat bilatu eta berdina gertatuko da irakasleak egindako galderak oso luzeak direnean. Ondorioz, irakasleak umearen mailari dagozkion galderak egin behar dizkio (galdera irekiak) umearen memoria oraindik garatzen ari delako (Ituero eta Casla, 2017).

Horrez gain, irakasleak umearen erantzuna itxaroten jakin behar du eta umearen erantzunean jarrera aktiboa izan behar du. Halaber, umearen erritmoetara egokitzea ezinbestekoa da, umeari erantzun bat sortzen lagundu ahal izateko. Horrela umea baloratuta sentituko da eta horrek helduarekin komunikatzeko gogoia sustatuko du (Marisca, 2017).

Gainera, umearen erantzuna egokia ez denean, oso garrantzitsua da ez zuzentzea komunikazioa apurtzen baitu (garrantzia ematen zaio erantzunaren formari eta ez, berriz, mezuari) (Ituero eta Casla, 2017). Zuzendu beharrean, komenigarria da akatsa erregistratzea, bukaeran akatsen inguruan eztabaidatzea eta esaldia errepikatzea behin akatsa zuzenduta dagoenean (Reguero, 2017).

Azkenik, umei erantzunak bilatzeko denbora eman behar zaio eta irakasleen jarrera aktiboa izan behar du (pazientzia handia). Batzuetan, umeen erantzuna azkar bilatzen denean, irakasleek ematen dute erantzuna eta ez diogu umeari pentsatzen edo esaldia formulatzen uzten eta horrek interakzioa apurtu egiten du. Umeari esan behar zuena ahaztu duela pentsatzen dugunean, laguntza txiki bat eskaini diezaiekegu, gaia beste hitz ezberdinekin azaltzen baina asko intsistitu barik. Modu horretan, umeek haien

mezuak garrantzitsuak direla sentituko dute eta irakasleak berak esandakoa baloratzen duela pentsatuko du eta horrek umearen ahozko hizkuntza sustatuko du (Ituero eta Casla, 2017).

## **5. Umearen ahozko hizkuntza**

Hasteko, esan beharra dago irakaslearen papera umearen ahozko hizkuntza sustatzeko garrantzitsua izan arren, horrek ez du esan nahi umeak irakasleari esker ahozko hizkuntza bereganatuko duenik, hau da, garapen hori bere ingurunean dauden hainbat faktoreei esker ere ematen da (López Valero eta Encabo, 2013).

Jarraituz, Bigas-ek (2008) ahozko hizkuntza barnerratzeko hainbat faktore inposatzen ditu: gizabanakoen faktoreak (umeak bizi izan dituen egoerak, berarentzat bereziak izango dira; adibidez, ahozko hizkuntza garatzen ari den ume batek anaia/arrebak ditu eta horrek umearen jarrera komunikatiboan eragina izango du), umeak bere ingurunean jasaten dituen afektuzko edo atentziozko egoerekin zerikusia duten faktoreak (estimulatuak ez dauden umeak, zailtasun handiak izango dituzte haien garapen komunikatiboan; adibidez, umezurtzen babes-etxe batean hazi den ume bat) eta umeek haien familia kideekin izan duten interakzioekin zerikusia duten faktoreak (umeak hauekin izan duen interakzioa handia izan bada, honen prozesu kognitibo eta linguistikoa garatuagoa egongo da).

Horrekin lotuta, beste hainbat autoreek jakitera eman dute ahozko hizkuntza bereganatzeko hainbat faktore kontuan hartu behar direla: osasuna (osasun hobea duten umeek azkarrago ikasten dute ahozko hizkuntza. Izan ere, motibazio handia dute besteekin komunikatzeko eta talde sozial batean jarduteko), inteligentzia (adimenezko handiagoa duten umeek modu arin batean ikasten dute ahozko hizkuntza), maila sozioekonomikoa (maila sozioekonomiko altua duten haurrek azkarrago ikasten dute hizkuntza baten ahozko hizkuntza. Izan ere, baliabide eta laguntza handiagoa dute etxean), komunikatzeko desira (gero eta handiagoa izanez gero, umea askoz gehiago motibatuko da eta horrek ahozko hizkuntzan lagunduko dio) eta familia kideen kopurua (zenbat eta handiagoa izan familia kideen kopurua, orduan eta motelagoa izango da haurraren ahozko hizkuntzaren ikaskuntza) (Hurlock, 2010).

Halaber, umeak ahozkotasuna menperatzeko gaitasun hauek bereganatu behar dituela jakitera ematen dute: testuinguru ezberdinak eta helburuak harremanetan jartzeko gaitasuna izatea, transakzio-egoeretan sensibilitatea izateko gaitasuna, esperientzien antolamentuan sistematizatzeko gaitasuna eta hizkuntzan abstrakzio maila handia izatea. Argi dago umeak bakarrik gaitasun horiek bereganatzea ezinezkoa dela, horregatik bere testuinguruak garrantzi handia du honetan (Brumer, Watson eta Premat (1986). Horrez gain, Marcerren (2008) esanetan, ahozko hizkuntza garatzeko

hainbat gaitasun barneratu behar direla esaten da: gaitasun fisikoa (umeak bere gorputz eta ahotsaren erabilerako gaitasuna; adibidez, nola proiektatzen duen umeak bere ahotsa egoera ezberdinetan), gaitasun linguistikoa (umeak komunikatzeko erabiltzen duen hiztegia eta esaldiaren estruktura gramatikala), gaitasun kognitiboa (esaldiaren edo elkarrizketaren edukiari erreferentzia egiten dio. Umeak duen ulermen gaitasuna) eta gaitasun sozial eta emozionala (umeak ahozko hizkuntza erabiltzen du harreman sozialak indartzeko edota harreman horiek mantentzeko; adibidez, umeak hitz egiteko gai dira besteekin elkarlana sustatzeko?)

Azkenik, Castañeda-k (1999) umeek ahozko hizkuntzaz jabetzeko honako baldintza hauek (barrukoak eta kanpokoak) bereganatu beharko dituztela baieztatzen du: nerbio sistemaren madurazioa, entzuketa maila altua eta aktiboa izatea, inteligentzia maila altua garatzea, garapen psiko-afektiboa sustatzea eta ingurune soziokultural sustagarria izatea.

### **5.1 Ahozko hizkuntza barneratzeko etapak.**

Nahiz eta hizkuntza ezberdinak bereganatu, haur guztiek urrats berdinak betetzen dituzte bere jabetzara ematen denean. Umeak dituen lehenengo komunikazioak honek bere ama, aita edo bere ingurunean dituen pertsonekin ematen dira. Umearentzat pertsona horiek dira “objektu” garrantzitsuenak. Helduak umearen negarra, barrea, umearen keinuak eta abar interpretatzen ditu, umeak komunikatzeko intentzioa duela pentsatuz (Bigas, 2008).

Bi hilabeterekin, umea eta heldua, etengabe interakzioan daude eta horrek umeari esanahiak bereganatzen laguntzen dio. Modu horretan, umeak etengabe hizkuntzaren fonemak bereganatuko ditu eta aspektu paralinguistikoa kontrolatuko ditu (Bigas, 2008). Umeak lau hilabete dituenean gutxi gora behera, haur elebidunak hizkuntza biak identifikatzen ditu. Halaber, hilabete gutxirekin ere, bere inguruan entzuten dituen hizkuntza-hotsak erabiltzen hasten da, eta entzuten ez dituen hainbat ere bai, bere mintzamen-organoei eta hizkuntza-ahalmenak horretarako ahalbidetzen dutelako (Barreña eta García, 2009)

Hamar edo hamabi hilabete dituenean, umea hizkuntzaren hotsak ekoiztera mugatzen da eta lehenago izan duen ahalmen zabalagoa murrizten da. Hala ere, esan beharra dago oraindik ez dituela erabiliko garatzen ari den hizkuntzaren hots guztiak. Haurren lehenengo urtean, garapen fonologikoa ematen da. Haurrak entzuten duen hizkuntza identifikatzen du egun gutxi dituenean. (Barreña eta García, 2009). Nahiz eta hizkuntzaren hots guztiak gauzatzeko gai ez den, urtebete gutxi gora behera duenean, lehen hitzak ekoizten hasiko da umea. (López-Ornat, eta besteak, 2007). Hasieran,

hitzak banan-banan bakarrik erabiltzeko gai izango da eta hitzak erabili baino lehen, haurrak horiek bakarrik ulertu egiten ditu eta (13 hilabete ditueneko berrogeitaka hitzetik gora ulertzen dituela esaten da baina ez ditu guzti horiek erabiltzen). (Barreña eta García, 2009).

Hamalau hilabete izanda, gutxi gora behera, umeak diskurtsoa ulertzen hasiko da eta esaldiak osatuko ditu pixkanaka-pixkanaka. Hala ere, esan beharra dago nahiz eta umeak esaldiak osatu, esaldi horien esanahi konbentzionala ulertzen duen. Umearen garapena, input-arekin zerikusia izango du. Izan ere, umeak hizkuntzarekiko duen garapena bere testuinguruak eskaintzen dion inputari esker ematen da. Urte dituelarik, umeak bere testuinguruan dagoen hizkuntza ulertzeko gai da baina testuinguruz kanpo dauden egoerei erreferentzia egiteko zailtasun handiak ditu. Hizkuntzak bere jokoan laguntzen du baina oraindik ez du akzioa antolatzen.

Hamazortzi hilabete dituenean, gutxi gorabehera, hitzak elkartzen hasi eta hitz biko ekoizpenak egiten hasiko da haurra. Hilabete gutxira, nabarmen hasiko dira agertzen haurraren hitzezko ekoizpenean morfologia-markak eta sintaxi-ezaugarriak. Horrez gain, gutxinaka- gutxinaka, hizkuntzaren berezitasunak ondo aplikatzen hasiko da umea. Modu horretan, hiru urterekin, konplexutasun sintaktiko sendoa izango du haurraren hizkerak (Barreña eta García, 2009).

3 urte dituelarik, umeak bere testuinguruan dagoen hizkuntza ulertzeko gai da baina testuinguruz kanpo dauden egoerei erreferentzia egiteko zailtasun handiak ditu. Hizkuntzak bere jokoan laguntzen du baina oraindik ez du akzioa antolatzen.

4 urterekin, hizkuntzaren baloreaz ohartzen da; hau da hizkuntza komunikatzeko balio duela ulertzen du eta horren ondorioz, hitz egiteko interes handia izango du. Bere testuingurutik kanpo dauden egoeretan adierazteko gai da gehienetan. Hizkuntzaren etapa egoentrikoan daude (Bigas, 2008).

Bost urte betetzen ditueneko, gutxi gora behera (batzuetan askoz lehenago, eta, ahozko hizkuntza guztiz garatua izango du haurrak. Hala ere, hortik aurrera hiztegia aberastu beharko du, eskola-hizkuntzaren arauetara moldatzen ikasi beharko du bere hizkera, pragmatikaren eta diskurtsoaren arloak sendotu eta landuko ditu. Horrez gain, bereganatu duen hizkuntzaren aldaerak ere erabiltzen ikasi beharko du. López-Ornat, eta besteak, 2007). Halaber, Bigasek (2008) aipatu egiten du umeak 5 urterekin hizkuntza besteekin koordinatzeko erabiltzen duela eta ez duela zailtasunik ulertzeko edota bere burua adierazteko bere testuingurutik kanpo dauden egoeren aurrean.

## **6. Ahozko hizkuntza garatzeko errekurtsioak/ariketak**

Hasteko, esan beharra dago nahiz eta ahozko hizkuntza lantzeko baliabide asko egon, ahozko hizkuntza modu motibagarri batean sustatzen duten teknika askorik ez

dagoela. Ondorioz, jarraian garatuko diren teknika/baliabideak hainbat autoreek jorratutako teoriak aipatuko dira, non haien helburu nagusia ahozko hizkuntza modu berritzaile batean tratatzea den.

Lopez eta Encabo (2013) Dramatizazioa ahozko hizkuntza lantzeko eta garatzeko ariketa garrantzitsua dela uste dute:

La dramatización es un excelente recurso para la mejora de la expresión oral, ya que el teatro supone una vivificación del texto, un hacer-presente de un discurso activo y con cuerpo y voz. La actividad dramática que proponemos como medio para la mejora de la expresión oral para niños no debe confundirse con el juego espontáneo que nace en edades tempranas ni tampoco con el teatro profesional.

Horrekin loturik, ahozko hizkuntza komunikatiboa lantzeko hainbat estrategia daude: role-playing-a (rolen aldaketa, besteen papera antzeztea), dramatizazioa, entrebistak, hitzaldi edo eztabaidak, ahozko aurkezpena, eguneroko ohiko egoera erabiltzea, paperak aldatzea eta egoera komunikatiboak behatu eta analizatzea. Era berean, ahozko hizkuntzaren ariketa interaktiboak oso baliagarriak dira umeak behatu eta hobeto ezagutzeko, komunikazioaren gaitasun berriak transmititzeko, umeen lorpenak ebaluatzeko eta abar. Hala ere, umeek ahozko komunikazioa barneratu ahal izateko, berebizikoa da eskolan irakaskuntza jarraitua eta planifikatua izatea (del Río,1993).

Horrez gain, ipuinak, txotxongiloak, olerki laburrak, aho-korapiloak, errefrauak, igarkizunak, abestiak, simulazioa jolas sinbolikoan, errepresentazioak, komikiak eta abarren erabilerak ahozkotasuna aberasten du (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012). Halaber, Novoa, Otero, García eta Casadoren (2011) ustetan, ahozko hizkuntza tratatzeko jolas sinbolikoa sustatzen duten ariketak bultzatu behar dira eta gaur egungo teknologien bidez gaitasun hori aurrera eramateko baliabideak kontuan hartu behar dira. Izan ere, umearen bizitzan teknologiak leku handia du.

Halaber, euskarri literarioa ahozkotasuna lantzeko teknika baliagarria izan daitekeela proposatzen du Mendoza-k (2007). Izan ere, literaturari esker, historiaz jabetzeaz gain, hizkuntzaren hainbat alderdi teoriko eta praktiko ikasi ditzakete umeek; ipuin baten bidez, adibidez, gorputz atalak, animalien izenak, hizkuntza adierazleak eta abar ikasiko dituzte umeek. Autore honek aipatutako teknika (euskarri literarioa) batez ere atzerriko hizkuntza ikasteko erabilgarria dela proposatzen du baina nire ustez, lehen eta bigarren hizkuntza ikasteko ere baliagarria da.

Era berean, ahozkoa lantzerakoan jorratuko den gaia berria bada, irudiak oso garrantzitsuak dira: objektua ordeztzen dute, espazioak irudikatzen dituzte, ekintzen segidak edo erlazioak seinalatzen eta hizkuntza interpretatzeko laguntza handia ematen dute. Halaber, kontaketa luzea bada, oroitze lana eskatzen du. Horietan, ikusizko



laguntzak aldamiatuko du haurren parte-hartzea (Ruiz-Bikaindi, 2009). Halaber, bideoak erabiltzeak ulermenari laguntzen dio, komunikazio-testuingurua egoki irudikatzeko bidea ematen duten elementu ezberdinak eskaintzen ditu eta. Hala ere, Haur Hezkuntzan komenigarria da ahotsik gabeko bideoak ikustea, haurren ulermena sustatzeko (Navarro, 2003).

Bestalde, Haur Hezkuntzan ahozko komunikazioa lantzea oso garrantzitsua denez, ez du balio ahozko ariketak egitearekin bakarrik, baizik eta beharrezkoa da landuko diren ariketek hainbat helburu betetzea. Alde batetik, interaktibitatea eta produktibitatea (umeek haien artean eta irakaslearekin interakzionatu behar dute, horrela, igorlearen zein hartzailearen rolak barneratzen dituztelako). Gainera, ahozkotetasuna jorratzea; hau da, hobeto hitz egiteko, ezinbestekoa da hitza ondo erabiltzea (bai hitz egiterakoan eta baita idazterakoan ere). Bestalde, ariketak umeentzat zenbat eta garrantzitsuagoak izan, orduan eta onuragarriagoak izango dira haurren ikaskuntzarako. Horrez gain, sistematizazioa aipatzen da (ahozko ariketek zentzua hartzen dute irakasleak umei laguntza eskaintzen dienean). Azkenik, helburu horiek plasmatu direnean (helburu pragmatikoak, formalak, ulerkuntzakoak, eta abar), ariketen bidez jartzen dira praktikan (del Rio, 2016).

Azkenik, ahozko hizkuntza garatzeko erabiliko diren ariketak zenbait funtzio bete behar dituztela jakitera ematen du Castañedak (1999). Autore honek adierazten duen moduan, ahozko hizkuntzak garrantzitsuak diren funtzio ezberdinak betetzen ditu gizakion bizitzan: funtzio komunikatiboa (hizkuntzaren funtziorik garrantzitsuena komunikazioa da, gizakiok besteekin harremantzeko beharra daukagu eta), funtzio ezagungarria (ikaskuntza eta abstrakzio prozesuak emateko lagungarria da. Umeak funtzio honi esker lehenengo abstrakzioak eta kontzeptu elementalak sortuko ditu, zeinak bere ingurunea ulertzeko lagungarriak izango diren) eta funtzio instrumentala (umeak laguntza eskatzeko, bere beharrak adierazteko, eta abar, ahozko hizkuntza erabiltzen du. Halaber, funtzio pertsonala (umeak ahozko hizkuntzaren bidez bere sentimenduak, motibazioak, iritziak eta abar azalaratu ditzake) eta moldagarritzko funtzioa (ahozko hizkuntzak ingurune sozialari egokitzeko/moldatzeko aukera ematen digu; hau da, funtzio honek umeari bere burua gauzatzen laguntzen dio).

## **7. Proiektuaren helburuak. Curriculum-ak zer dioen**

Hasteko, esan beharra dago proiektu honen helburu nagusia/orokorra ahozkotetasuna lantzea izango dela, honek garrantzi handia du eta ikaskuntza/irakaskuntza prozesuan. Ondorioz, proiektu hau eraikitzeke, ezinbestekoa izan da 237/2015 Dekretua kontuan izatea. Dekretu horri erreferentzia eginez, honako hauek dira bertan zehazten diren

helburuak hizkuntzarekiko: hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta ahozko hizkuntza pixkanaka erabiltzea norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko. Halaber, gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea, komunikatu nahi dena interpretatzeko eta inguruneko hizkuntza ezberdinetan komunikatzeko jarrera irekia izatea. Horrez gain, hizkuntza komunikazio tresna moduan erabiltzen hastea, ikasgelako egoeratan parte hartzeko . Azkenik. hainbat kultura-tradiziotako testu batzuk ulertzea, azaltzea eta moldatzea, umeak haiekiko interesa izan dezan.

Nahiz eta 237/2015 Dekretua kontuan izatea garrantzitsua izan den lan hau jorratzerako orduan, esan beharra dago dekretu honetan modu orokor batean tratatzen dela hizkuntzaren gaia eta ahulezia hori proiektu hau eraikitzerako orduan ez da lagungarria. Ondorioz, ezinbestekoa izan da proiektu honetan Haur Hezkuntzako 2. zikloan erabiltzeko hainbat helburu zehaztea, ahozko hizkuntza modu integral batean aurrera eraman ahal izateko.

Hasteko, ahozko hizkuntza erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko, interakzioa sustatzea (parte hartze aktiboa bultzatzea eta komunikazio tresnak eskuratzeko) eta tresna horiez gozatzea. Horrez gain, gainerako haurren (eta helduen) mezuak ulertzea, dramatizazioan parte hartzea eta rol aldaketak egitea. Halaber, umeek eztabaidetan parte hartzea eta besteen aurrean askatasunez hitz egiten ikastea, ekintzak erregulatzeko funtzioarekin erlazionatutako komunikazio gaitasunak jorratzea (besteen ekintzak eta norbere ekintzak erregulatzeko) eta informatzeko funtzioarekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak jorratzea (informazio objektiboa eta subjektiboa ematen ikastea). Era berean, ekintzak erregulatzeko funtzioarekin erlazionatutako komunikazio gaitasunak jorratzea (besteen ekintzak eta norbere ekintzak erregulatzeko), hiztegi berria ikastea, funtzio metalinguistikoarekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak garatzea (asmakizunen eta txisteen esanahia interpretatzea eta berriak asmatzea) eta ikuspuntu pragmatikoa, sintaktikoa, semantikoa eta fonologikoa jorratzea.

## **8. “Ahozkotasuna, mundu bat” proiektua**

Jarraian jorratuko den proposamena Haur Hezkuntzako 2. zikloan aurrera eraman da, 3, 4 eta 5 urteko umeekin zehatz-mehatz. Proposamen honekin lortu nahi dena, lehen esan bezala, ahozko hizkuntza modu dibertigarri eta motibagarri batean garatzea da. Horretarako, ikastetxearen (Haur Hezkuntza) testuingurua behatuz eta ikertuz, ahozkotasuna lantzeko tresnarik baliagarrienak erabiliko dira. Halaber, esan beharra dago ariketa horiek proposatzeko GHZ (Garapen Hurbileko Zona) kontuan izan dela, umeek gaitasun honetaz (ahozkotasunaz) jabetu ahal izateko.

## 8.1. Partaideak

Esperientzia honetan Haur Hezkuntzako 2 zikloko Oiongo (Araba) ikastetxe pribatu bateko 54 umek parte hartu dute (3, 4 eta 5 urteko gelako umeak). Ikasle guztiak D ereduan matrikulaturik daude. Ume hauek aukeratzearen arrazoi nagusia, Practicum III.a ikastetxe horretan jorratu izan dudala da.

Ikastetxearen testuinguruari dagokionez, Oionen kokatuta dago (Arabar Errioxa), Fueros kaleko 5 zenbakian. Oionek, 3368 (2018eko datuak) biztanle ditu. Herri honen maila sozioekonomikoari erreparatuz, maila apaleko familiak dira. Izan ere, langabezien tasa oso handia da ( ia ia %19-koa). Halaber, esan beharra dago herriko (Oiongo) maila San Bizente Ikastolako maila sozioekonomikoarekin konparatuz, azkenengo honen maila handiagoa dela, bertan dauden ikasleen familien maila ekonomikoa handiagoa delako eta Oionen aniztasun kulturala handia dela kontuan izanda eta ikastolan garatzen den hizkuntza euskara izanda, atzerritar gehienak herri horretan dagoen eskolara joaten direlako.

## 8.2 Proposamenaren deskribapena

Ezeri ekin baino lehen, esan beharra dago jarraian garatuko den proiektu honetan, hainbat ariketa aurrekoan azaldutako ikastetxean aurrera eraman izan ditudala eta beste batzuk, berriz, ez. Halaber, lehen esan bezala, nahiz eta 237/2015 Dekretua baliagarria izan den lan hau burutzeko, ezinbestekoa izan da Del Riok (2016, 60-62 orr) proposatutako gaitasunak kontuan izatea, ahozkotasuna modu integral batean jorratu ahal izateko. Hona hemen proposamenaren deskribapen txiki bat:

JARDUERA	KONPETENTZIAK/ GAITASUNAK	EDUKIAK	MATERIALA	GUNEA	DENBORA
“Tximeleta belarriak” ipuina: ipuina irakurri eta ipuinaren mezua ulertu	<p><b>Konpetentziak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzezko komunikaziorako eta konpetentzia.</li> <li>-Elkarbizitzarako konpetentzia</li> <li>-Norbera izaten ikasteko konpetentzia</li> <li>- Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia</li> </ul> <p><b>Gaitasunak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatzeko funtzioko komunikazio gaitasunak</li> <li>- Funtzio metalinguistikoko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko hizkuntza komunikaziorako bitartekoa dela jakitea</li> <li>- Ipuinen, olerkien edo errimen zatiak entzutea eta haien mezua ulertzea.</li> <li>-Eguneroko bizitzako egoeretan dituzten komunikazio-xedeak ulertzea eta horietara egokitzea.</li> </ul>	Ipuina	Gela arrunta	45 minutu

	komunikazio gaitasunak - Ekintzak erregulatzeko funtzioarekin erlazionatutako komunikazio gaitasunak				
Zoriontasuna lortzeko "Dramatizazioa": emozioak azaleratuz umeek dramatizatu behar dute.	<b>Konpetentziak</b> - Hitzeko komunikaziorako eta konpetentzia. -Elkarbizitzarako konpetentzia -Norbera izaten ikasteko konpetentzia - Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia - Komunikazioaren gestioarekin eta formula sozialekin erlazionatutako komunikazio gaitasunak <b>Gaitasunak</b> -Funtzio metalinguistikoko gaitasunak -Informazioa jasotzeko gaitasuna - Informatzeko funtzioko gaitasunak	-Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea.  -Ahozko adierazpenetan, egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, eta abar.  -Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea.  -Ahozko hizkuntza komunikaziorako bitartekoa dela konturatu  -Sormena adieraztea  -Hizkuntza eta dialektoak erabiltzea	-Kamiseta bat -Emozioen argazkiak	Gela arrunta	30 minutu
Poesia ludiko-korala: aho korapilo ezberdinak ikasi modu dibertigarri batean	<b>Konpetentziak</b> - Hitzeko komunikaziorako eta konpetentzia. - Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia <b>Gaitasunak</b> -Funtzio metalinguistikoko gaitasunak -Informazioa jasotzeko gaitasunak	-Ahozko adierazpenetan, lexikoa, sintaxi-egiturak, eta abar erabiltzea.  - Ipuinen, olerkien edo errimen zatiak mezua ulertzea.	Aho-korapiloen txartelak	Gela arrunta	20 minutu
	<b>Konpetentziak</b> - Hitzeko komunikaziorako eta konpetentzia.	- Ipuinen, olerkien edo errimen zatiak mezua ulertzea.			

<p>Asmakizunak: ahozko hizkuntza garatu baliabide hauekin</p>	<p>-Elkarbizitzarako konpetentzia -Norbera izaten ikasteko konpetentzia - Hizkuntza eta literatura- komunikaziorako konpetentzia <b>Gaitasunak</b> -Funtzio metalinguistikoko komunikazio gaitasunak -Informazioa jasotzeko komunikazio gaitasunak</p>	<p>- Eguneroko egoeretan dituzten komunikazio- xedeak ulertzea eta horietara egokitzea.</p>	<p>Asmakizunen txartelak</p>	<p>Gela arrunta</p>	<p>20 minutu</p>
<p>Istoria bat sortuz: guztion artean istorio bat sortu (banan banan bakoitzak zati bat asmatu)</p>	<p><b>Konpetentziak</b> - Hitzeko komunikaziorako eta konpetentzia. -Elkarbizitzarako konpetentzia -Norbera izaten ikasteko konpetentzia - Hizkuntza eta literatura- komunikaziorako konpetentzia <b>Gaitasunak</b> -Funtzio metalinguistikoko komunikazio gaitasunak  -Informazioa jasotzeko komunikazio gaitasunak  - Informatzeko funtzioko komunikazio gaitasunak</p>	<p>-Informazio, beharrizan, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea.  -Ahozko adierazpenetan, lexikoa, sintaxi- egiturak, eta abar erabiltzea  -Hizketaldiak eta elkarrizketetan estrategia egokiak erabiltzea.  -Ahozko hizkuntza komunikaziorako bitartekoa dela konturatu  -Sormena adieraztea  -Hizkuntza eta dialektoak erabili</p>	<p>Ez dago material fisikorik</p>	<p>Gela arrunta</p>	<p>Behar den denbora</p>
<p>Hitzak silabatan zatitu</p>	<p><b>Konpetentziak</b> - Hitzeko komunikaziorako konpetentzia. - Hizkuntza eta literatura- komunikaziorako konpetentzia <b>Gaitasunak</b> -Funtzio metalinguistikoko gaitasunak -Informazioa jasotzeko gaitasunak</p>	<p>- Ipuinen, olerkien edo errimen zaten mezua ulertzea. - Eguneroko egoeretan dituzten komunikazio- xedeak ulertzea eta horietara egokitzea.</p>	<p>-Hitz ezberdinen txartelak -Arbela hitz horiek silabatan zatitzeko modu idatzizkoan</p>	<p>Gela arrunta</p>	<p>15 minutu</p>

<p>“Dadoa-k” zerk esaten digu?: Dadoaren aurpegi bakoitzean argazki bat dago. Umeak horren inguruan edo argazkiak esaten duenaren inguruan hitz egin.</p>	<p><b>Konpetentziak</b>  - Hitzeko komunikaziorako eta konpetentzia.  -Elkarbizitarako konpetentzia  -Norbera izaten ikasteko konpetentzia  - Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia</p> <p><b>Gaitasunak</b>  - Komunikazioaren gestioko eta formula sozialeko komunikazio gaitasunak  -Funtzio metalinguistikoko gaitasunak  -Informazioa jasotzeko gaitasunak  - Informatzeko funtzioko gaitasunak</p>	<p>-Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adieraztea  -Ahozko adierazpenetan, lexikoa, sintaxi-egiturak, eta abar erabiltzea.  -Hizketaldiak eta elkarrizketan estrategia egokiak erabiltzea.  -Ahozko hizkuntza komunikaziorako erabili  -Sormena adieraztea  -Hizkuntza eta dialektoak erabiltzea</p>	<p>-Dado bat argazki ezberdinekin</p>	<p>Gela arrunta</p>	<p>Behar den denbora</p>
<p>Entrebista eta role-playing: Galdera batzuen bidez entrebista bat sortu.</p>	<p><b>Konpetentziak</b>  - Hitzeko komunikaziorako konpetentzia  -Elkarbizitarako konpetentzia  -Norbera izaten ikasteko konpetentzia  - Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia</p> <p><b>Gaitasunak</b>  -Funtzio metalinguistikoko gaitasunak  -Informazioa jasotzeko gaitasunak  - Informatzeko funtzioko gaitasunak</p>	<p>-Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea.  -Ahozko adierazpenetan, egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, eta abar.  -Hizketaldiak eta elkarrizketetan estrategia egokiak erabiltzea.  -Ahozko hizkuntza komunikaziorako erabiltzea  -Sormena adieraztea eta hizkuntza eta dialektoak erabiltzea</p>	<p>-Mikrofono bat  -Argazki ezberdinak</p>	<p>Patioan</p>	<p>30 minutu</p>
	<p><b>Konpetentziak</b></p>	<p>-Informazio, beharrian, emozio eta</p>			

<p>Eguneroko Interakzioak: egoera ezberdinak ahozotasuna lantzeko erabili (korroa, jolas librea, errutinak, eta abar)</p>	<p>- Hitzeko komunikaziorako eta konpetentzia. -Elkarbizitzarako konpetentzia -Norbera izaten ikasteko konpetentzia - Komunikazioaren gestioarekin eta formula sozialekin erlazonatutako komunikazio gaitasunak</p> <p><b>Gaitasunak</b></p> <p>- Komunikazioaren gestio eta formula sozialeko gaitasunak</p> <p>-Funtzio metalinguistikoko gaitasunak</p> <p>-Informazioa jasotzeko gaitasunak</p> <p>- Informatzeko funtzioko gaitasunak</p>	<p>gogoak hitzen bidez adierazi</p> <p>-Ahozko adierazpenetan, lexikoa, sintaxi-egiturak, erabili</p> <p>-Hizketaldiak eta elkarrizketetan estrategiak erabili</p> <p>-Ahozko hizkuntza komunikaziorako erabili</p> <p>-Sormena adieraztea</p> <p>-Hizkuntza eta dialektoak erabili</p>	<p>Ez dago materialik</p>	<p>Gela arrunta</p>	<p>Behar den denbora</p>
---	--	---	---------------------------	---------------------	--------------------------

## 9.2 Proiektuaren garapena

Behin jarduera bakoitzean landuko diren gaitasunak/konpetentziak eta edukiak modu labur batean azaldu diren, jarduera bakoitzaren garapenari ekingo zaio, non jarduera guztien azalpen zabal bat emango den (jardueraren deskribapen osoa, erabilitako materialaren azalpena, lortutako emaitzak eta abar). Hasiera batean praktikara eraman ez diren 3 jarduera garatuko dira, eta ondoren, San Bizente Ikastetxean burututako 6 jarduera aurrera eramango dira.

### a) “Tximeleta belarriak” izeneko ipuina

Ariketa hau burutzeko, irakasleak Tximeleta belarriak izeneko ipuina kontatuko die 5 urteko ikasleei. Ipuin hau, hizkuntza garatzeko aproposa da. Izan ere, literatura irakurtzeak hizkuntzaren jabeakuntzan laguntzen du, fonologia ezagutzen, morfosintaxia erabiltzen, lexikoa osatzen, hizkuntza-adierazleak (egiturak, etab.) erabiltzen eta abar. Kasu honetan, errimak (Maddi belarri handi), adjektiboak (belarri handi, zapata zaharrak) eta galderak (ama, zuk uste duzu belarri handiak ditudala? nolakoak dira tximeleta belarriak?) agertzen dira.

Behin irakasleak ipuina irakurri duenean, hurrek ulertu ez dituzten hitzen zerrenda bat egingo dute eta talde txikietan hitz horien esanahia bilatzen saiatuko dira. Era honetan, ipuinean agertzen den hiztegi berria ikasi ahalko dute hurrek.

Jarduera honen helburuei erreparatuz, komunikazio tresnak erabiltzea eta gainerako haur eta helduen mezuen ulermena landuko da. Horrez gain, berdinen arteko eztabaida landuko da eta baita haien arteko interakzioa ere. Amaitzeko, hiztegi berria ikastea izango da helburu nagusietako bat.

Antolaketari dagokionez, irakasleak 45 minutu eskainiko ditu jarduera hau aurrera eramateko. Gainera, erabiliko den materiala ipuina izango da. Halaber, ohiko gelan egingo da eta ipuina kontatzerakoan, talde handian bilduko dira umeak.

Irakaslearen paperari dagokionez, ipuina irakurtzerakoan, tonu ezberdinak erabiliko ditu, umearen arreta mantentzeko. Halaber, mimika eta dramatizazioa erabiltzea ezinbestekoa izango da, umeak mezua hobeto uler dezan. Horrez gain, umeentzat berriak diren hitzak motel irakurri eta behin eta berriro errepikatzea komenigarria izango litzateke.

Azkenik, estrategien input kalitateari dagokionez, pragmatika lantzeko, esaldi zuzenak egingo dira eta ipuina amaitzerakoan, irakasleak galderak egingo ditu umeek mezua ulertu duten jakiteko (zer gertatu zaio Maddiri? Zergatik ez dute umeek berarekin jolastu nahi? eta abar.) Sintaxiaren barnean, esaldiaren luzeran aldakortasun gutxi egotea saiatuko da irakaslea. Gainera, semantikaren aldetik, hitz berezi asko landuko dira ipuinaren bitartez. Amaitzeko, fonologia lantzeko asmoz, eten markatuak egingo dira eta hizketa mantsoa izango da.

## **b) Zoriontasuna lortzeko “dramatizazioa”**

Jarduera hau 3 edo 4 urteko umeekin aurrera eramateko aproposa da. Lehendabizi komenigarria izango litzateke emozioen inguruko ezagutza izatea, hurrek hobeto uler dezaten jarduera honen oinarria.

Jarduera honetan, irakasleak kamiseta bat eta emozioen inguruko argazki ezberdinak ekarriko ditu. Irakasleak argazkien inguruko azalpen bat emango du umeen laguntzarekin eta ariketa honen errepresentazio bat egingo du: argazki bat hautatu horrek sentiarazi diona gorputzaren bidez eta ahozkotasunaren bidez azalduko du (tristura, adibidez). Behin emozio hori adierazi duen, kamiseta jantzi eta bat-batean zoriontsua bihurtuko da.



Antolaketari dagokionez, gela arruntean burutuko da jarduera hau eta 30 minutu irainduko du. Taldekatzeari erreparatuz, talde handian egingo da, edo nahi izanez gero 2 taldeetan banatuko dira umeak. Materialari erreparatuz, kamiseta bat eta emozioen inguruko argazkiak erabiliko dira.

Jarduera honen bidez dramatizazioa landuko da. Gainera, informatzeko eta informazioa jasotzeko funtzioarekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak lantzea lortuko da. Horrez gain, hiztegi berria ikastea eta rol aldaketak jorratzea sustatuko da. Adibidez, haurrak, dramatizazio alorra lantzen dute hiztegi berria ikastearekin batera eta ondoren, iritziak ematen dituztenean, informazio subjektiboa eta objektiboa ematen ikasten dute.

Irakaslearen paperari erreparatuz, emozioen arteko ezberdintasunak ondo dramatizatzea ezinbestekoa izango da jarduera hau burutu ahal izateko. Halaber, umeei nahi duten moduan dramatizatzeak aukera eman behar die eta haiek laguntza eskatuz gero, irakasleak laguntza emango die (adibidez, ume batek ez badaki nola dramatizatu emozio bat, honek "estrategia" ezberdinak eskainiko dio). Hala ere, esan beharra dago irakasleak ez diola umeari erantzuna emango, baizik eta hori bilatzen lagunduko dio.

Input kalitateari dagokionez, ikuspuntu pragmatikoari erreparatuz, antzerkia egiterakoan, keinu eta mimika erabiltzea garrantzitsua izango da. Horrez gain, haurrek inputa interakzio egoera batean landuko dute, antzerkia egin eta gero eztabaida sortuko baita. Jarraituz, sintaxiaren barnean, irakasleak ipuinak haurrekin lantzerakoan, konplexutasun gramatikal txikia adieraziko du, haurrek ipuinaren esanahia ondo barneratzeko. Semantikaren aldetik, ipuinetan agertzen diren hitz desberdinak landuko dira haurrak haien hiztegia zabaltzeko. Ikuspuntu fonologikoan, berriz, tonu aldaketak, erregistro fina eta ahoskatze argia erabiliko dira antzerkia modu egokian egiteko.

Esandakoarekin erlazioan, hizkuntzaren ahozko gaitasunak hobetzeko estrategien artean, estrategia pragmatikoa eta linguistikoa erabiltzen dira. Estrategia pragmatikoari dagokionez, antzerkia prestatzerakoan eta hau dramatizatzerakoan, haurren hizkuntz-adierazpena indartzea, haur guztiek hitz egitea eta abar lortuko da. Gainera, antzerkia egin eta gero sortuko den eztabaidan, ikasleen parte hartzea kudeatuko da. Estrategia linguistikoarekin jarraituz, hizkuntzaren erabilera egokiaren erreferentziak eta ereduak emango dira haurrek antzerkia ondo landu eta dramatizatu dezaten.

### **c) Poesia ludiko-korala: aho-korapiloak**

Ariketa hau 4 urteko umeekin aurrera eramateko aproposa da. Aurreko ariketan bezala, haurren testuingurua kontuan hartuz, aho-korapiloric egokienak erabiliko dira; adibidez, esaldi laburrekoak, ulertzeko errazak, eta abar. Gainera, gelan momentu horretan jorratzen ari den gaiari lotuta egongo dira.

Antolaketari erreparatuz, ariketa honek 30 minutu irainduko du. Gainera, ohiko gelan egingo da eta ez da egongo taldekatzerik (guztiok batera). Jarduera honetan erabiliko den materialari erreparatuz, aho-korapiloen txartelak izango dira. Halaber, nahi izanez gero, ordenagailua erabili daiteke umeek aho-korapilo ezberdinak entzuteko eta bisualki ikusteko.

Irakaslearen papera gidatzailea izango da. Halaber, umeen ulermena bermatu behar du eta umei aho-korapilo hori errepikatzeko aukera eman behar dio, baita hori egiteko motibatu ere. Ume batek hori errepikatzeko gai ez denean, ez du umea errepikatzera bultzatuko, umeak hori berriro esan nahi ez badu.

Ahozotasuna lantzeko estrategien barnean inputaren kalitatean kokatuz, pragmatikari dagokionez, haurren ekoizpenaren errepikapenak egingo dira. Sintaxia lantzeko, perpaus laburrak izango dira nagusi. Horrez gain, ikuspuntu semantikoa, hiztegi mugatua erabiliko da. Fonologiari erreparatuz, intonazioa esajeratua eta adierazkorra izango da.

Jarduera honetan, pragmatikaren aldetik, ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da, segurtasun afektiboa bermatuko da eta hizkuntz-adierazpenak indartuko dira gehienbat. Arlo linguistikoa, berriz, hizkuntzaren erabileraren erreferentzia eta eredu egokiak ematea eta hizkuntzen formen arteko kontrastea aztertzea nagusituko da.

### **d) Asmakizunak**

Irakasleak gelara eramango dituen asmakizunen txartelak gaztelaniaz edo euskaraz izan daiteke bi hizkuntzak lantzeko aukera izateko. Erabiliko diren asmakizunak memento horretan lantzen ari diren gaiari lotuta egongo dira, umeen ezagutzetatik hurbil egoteko asmoarekin.

Antolaketari dagokionez, ariketa 5 urteko umeekin egingo da, gela arruntean eta talde handian egingo da. Horrekin batera, jarduerak 20 minutu irainduko du. Erabiliko den materialari erreferentzia eginez, txartel ezberdinak asmakizun ezberdinekin izango dira.

Jarduera honen helburu nagusiari dagokionez, funtzio metalinguistikoarekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak lantzea izango da. Halaber, gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea, eta informatzeko eta informazioa

jasotzearekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak lantzea; adibidez, umeeek asmakizunen esanahia interpretatzen dutenean, funtzio metalinguistikoarekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak landuko dituzte.

Halaber, irakasleak orokorrean, moderatzaile papera izango du, asmakizuna kontatzen duenean, eztabaida sortzen bada, irakasleak hor jorratuko du bere papera umeeek banan-banan hitz egitea lortzeko baita galderak eragiteko ere.

Input kalitateari erreferentzia eginez, ariketa hau ikuspuntu pragmatikotik, ikuspuntu sintaktikotik eta ikuspuntu fonologikotik jorratzen da. Horrez gain, irakasleak asmakizuna kontatzen ari denean, esaldi zuzenak, keinuak edota mimika erabiliko ditu ulergarriagoa izateko asmoz.

Estrategiekin jarraituz, ahozko hizkuntzaren gaitasunak hobetzeko, estrategia pragmatikoa eta linguistikoa landuko dira. Estrategia pragmatikoan, adibidez, txistea edo asmakizunaren inguruan zalantzak sortzen badira, denon parte hartzea bultzatu eta kudeatuko da, sortuko den eztabaidan denok kontatzen dena ulertzeko asmoz. Estrategia linguistikoaren barnean, hizkuntzaren erabilera egokiaren erreferentziak eta ereduak emango dira haurrek txistek edo asmakizunak modu egokian kontatu ahal izateko. Hau lagungarria izango da haurren hizkuntza garapenarentzat.

**EMAITZAK:**

Hasteko, aurreko jarduera hau burutu ostean garatutako ebaluazioari dagokionez, esan beharra dago Hezkuntzaren errealitatea oso konplexua denez eta horren ondorioz, ume bakoitzaren garapena jarduera bakoitzean behatzea oso zaila denez, lortu izandako emaitzak modu orokorrean eta laburrean adieraziko direla. Ostean, emaitzak modu garatuago batean agertuko dira (Ikus 1. Eranskina)

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>		<b>BATZUETAN</b>
Ahoz adierazitako testu errazak ulertzeko gaitasuna (asmakizunak)				X
Bi hizkuntzak erabiltzeko jarrera ona izan du	X			
Mezua hizkuntza batean ulertzeko eta beste batean azaltzeko gai da				X
Askotariko hizkuntzak baliatuz (gorputzarena, hitzezkoa, etab) ideiak adierazteko gai da.		X		

### e) Istorio bat sortuz

Ariketa honetan, irakasleak istorio bat hasiko du eta ikasle guztiek banan-banan jarraitu beharko dute; hau da, ume batek esaldi bat gehituko dio istorioari, hurrengoak beste bat (aurrekoarekin lotura izan behar du horrek) eta horrela istorioa amaitu arte. Ariketa hau 5 urteko umeekin burutuko da.

Antolaketari dagokionez, talde handian egingo da. Horrez gain, ariketa hau burutzeko behar den denbora erabiliko da; izan ere, umearen sormenari ez diogu oztoporik jarriko. Gainera, jarduera hau ere ohiko gelan egingo da materialik erabili gabe. Taldekatzeari erreparatuz, talde bakarra egongo da (ume guztiak batera).

Ariketa honen helburu nagusia, ahozko hizkuntza lantzea izango litzateke. Halaber, komunikazio tresnen erabilera sustatuko da. Horrez gain, gainerako haur eta helduen mezuen ulermenari arreta ipiniko zaio. Gainera, parte hartze aktiboa eta eztabaidatzen ikastea bultzatuko da. Azkenik, ekintzak erregulatzea landuko da.

Irakaslearen paper nagusia ariketa honetan, istorioa aurrera eramatea izango da. Horretarako, hasiera erraza planteatu beharko du eta umeren bat tratatzen bada, horri lagundu beharko dio edo beste ikaskideen laguntza eskatu beharko du. Halaber, txandak errespetatzea bermatu beharko du.

Inputaren kalitateari dagokionez, pragmatikaren aldetik, irakasleak keinu eta mimika ugari erabiliko ditu istorioa aurrera eramateko. Gainera, sintaxiaren barnean, perpaus gehienak gramatikalki zuzenak izatea sustatuko da. Horrez gain, semantikari dagokionez, irakasleak istorioa testuinguru hurbilean hasiko du. Azkenik, fonologiari erreparatuz, ahoskatze argia nagusituko da.

### **EMAITZAK**

Lehen esan bezala, ariketa honetan lortutako emaitzak modu orokor eta labur batean adieraziko dira. Ostean, jarduera honen emaitzak modu garatuago batean ikusteko aukera emango da (Ikus 2. Eranskina).

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>BATZUETAN</b>
Besteen mezuak ulertu ditu			X
Produzitutako mezuak egunerokotasunarekin zerikusia dute.	X		
Modu autonomo batean jardun du.			X
Eztabaidatzeko gaitasuna garatuz joan da.	X		

Umeak erabilitako perpaus gehienak gramatikalki zuzenak izan dira.	X		
Produzitutako mezuetan sormena erabili du.			X

#### f) Hitzak silabetan zatitu

Honako jarduera hau 4 urteko umeekin garatuko da. Taldekatzeari dagokionez, talde txikietan garatuko da (3-4 ume talde bakoitzean). Hasteko, txartela ezberdinak erakutsiko zaizkie eta bertan umeek jakin beharko dute zer ote den argazki horretan agertzen dena. Umeek ez badakite, irakasleak laguntza eskainiko die. Ondoren, irakasleak txartel horretako izen bat ahoskatuko du euskaraz eta talde bakoitzak hitz horien silabak banatu beharko ditu, ozen esanez. Hitza silabetan zatitu ahal izateko, txaloen bidez egin dezakete, silabak hobeto ikusteko helburuarekin.

Behin umeek hitz horiek silabetan zatitzen dakiten, irakasleak hitz zail batzuk erabiliko ditu, umeak horiek silabetan zatitzeko kapazak diren edo ez ikusteko asmoarekin. Halaber, hitzak silabetan zatitu direnean, lehendabizi irakasleak idatziko du arbelean hitz hori eta ondoren, umei idazteko eskatuko die. Horrela, idazkerari ere ematen zaio hasiera.

Antolaketari erreparatuz, ariketa honetan 15 minutu erabiliko dira. Gainera, ohiko gelan egingo da eta erabiliko den materiala argazki ezberdineko txartelak izango dira. Halaber, haurrak lau taldetan banatuta egongo dira eta irakasleak hitz ezberdinak esango dizkio talde bakoitzari.

Irakaslearen paperari dagokionez, taldeetan ematen diren eztabaidak behatuko ditu eta bakarrik beharrezkoa denean, esku hartuko du eta talde guztietako parte-hartzea bilatuko du.

Ahozotasuna lantzeko estrategien barnean inputaren kalitatean kokatuz, pragmatikari dagokionez, haurren ekoizpenaren errepikapenak egingo dira. Sintaxia lantzeko, perpaus laburrak izango dira nagusi. Horrez gain, ikuspuntu semantikoan, hiztegi mugatua erabiliko da. Fonologiari erreparatuz, intonazioa esajeratua eta adierazkorra izango da.

Jarduera honetan, pragmatikaren aldetik, ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da, segurtasun afektiboa bermatuko da eta hizkuntz-adierazpenak indartuko dira gehienbat. Arlo linguistikoan, berriz, hizkuntzaren erabileraren erreferentzia eta eredu egokiak ematea eta hizkuntzen formen arteko kontrastea aztertzea nagusituko da.

## **EMAITZAK**

Lehen esan bezala, ariketa honetan lortutako emaitzak modu orokor eta labur batean adieraziko dira. Ostean, jarduera honen emaitzak modu garatuago batean ikusteko aukera emango da (Ikus 3. Eranskina).

<b>IRIZPIDEA</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>BATZUETAN</b>
Hitzak silabetan zatitzeko gai izan dira.	X		
Eguneroko egoeretan dituzten komunikazio-xedeak ulertu eta horietara egokitu da.			X
Ahozotasuna modu egoki batean erabili du.	X		
Ahozotasuna idazkerarekin lotzen hasi da.			X
Besteen mezuak ulertu eta horiek errespetatu ditu (taldean jardun du)	X		

### **g) “Dadoak” zer esaten digu?**

Jarduera hau 3,4 eta 5 urteko umeekin burutuko da (elkarketan daudenean, hizkuntza txokoan). Irakasleak dado handi bat eramango du gelara. Dado horretako aurpegi bakoitzean argazki bat egongo da itsatsita. Jarduera honen helburu nagusia ahozkotasunaren bidez umeei argazki horren inguruan eztabaidatzea izango litzateke. Interesgarria izango da haur guztien iritzia entzutea eta zer ikusten duten jakitea. Umeen inguruan asko ikasi edo jakin daiteke argazkietan ikusten dutenaren arabera.

Antolaketari dagokionez, ohiko gelan burutuko da ariketa hau. Halaber, elkarketan burutuko denez, hizkuntza txokoan, hasieran bakarrik 7 umek parte hartuko dute, ondoren beste 7 umek, horrela denbora bukatu arte. Horrez gain, behar den denbora erabiliko da.

Jarduera honen helburuei erreparatuz, ahozko hizkuntza erabiltzea, parte hartze aktiboa bultzatzea, eztabaidatzen ikastea eta besteen aurrean askatasunez hitz egiten ikastea sustatuko da. Gainera, informatzeko eta informazioa jasotzearekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak, baita ekintzak erregulatzeko funtzioarekin erlazionatutako komunikazio gaitasunak ere jorratuko dira; adibidez, umeei eztabaidatzen dutenean interakzioa sustatuko da.

Irakaslearen paperari dagokionez, moderatzaile papera izango du; hau da, ez da jolasean sartuko, umeei laguntza eskatzen ez badute. Umeei esandakoa behatuko du. Horrekin batera, irakasleak galderak sortuko ditu haurren interakzioa sustatzeko asmoz.

Estrategiei dagokienez eta input kalitateari erreferentzia eginez, jarduera honetan ikuspuntu pragmatikoa lantzen da, haurrak inputa interakzio egoera batean jasotzen duelako eztabaida sortzen denean. Ikuspuntu sintaktikoan, berriz, haurrek argazkietan zer ikusten duten adierazteko konplexutasun gramatikal handirik ez dute adierazten eta haien errazagoa izango da jarduera aurrera eramatea. Semantikaren barnean, hitz desberdinak landuko dira. Bukatzeko, fonologiaren aldetik, ahoskatze argia eta hizketa mantsoa egon beharko dira.

### **EMAITZAK**

Lehen esan bezala, ariketa honetan lortutako emaitzak modu orokor eta labur batean adieraziko dira. Halaber, esan beharra dago jarduera hau 3,4 eta 5 urteko umeei garatu denez, beste hainbat irizpide hartu behar direla kontuan (irizpideak adinaren arabera). Izan ere, oso emaitza ezberdinak jaso izan dira. Ostean, jarduera honen emaitzak modu garatuago batean ikusteko aukera emango da (Ikus 4. Eranskina).

3 urteko umeen emaitzak:

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>BATZUETAN</b>
Argazkien mezua ulertu eta ahoz adierazteko gaitasuna izatea			X
Mezua egunerokotasunarekin lotu du	X		
Arreta mantendu eta jolasaren helburua ulertu du	X		X

4 eta 5 urteko umeen emaitzak:

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>BATZUETAN</b>
Argazkien mezua ulertu eta ahoz adierazteko gaitasuna izatea	X		
Arreta mantendu eta jolasaren helburua ulertu du			X
Mezua egunerokotasunarekin lotu du	X		

Fonologiaren aldetik, ahoskatze argia eta hizketa mantsoa erabili da			X
Askotariko hizkuntzak baliatuz nork bere sentimenduak, ideiak eta abar adierazteko gaitasuna izatea			X

#### **h) Entrebista eta role-playing**

Asanbladan entrebista baten inguruan hitz egingo da, non umeen aurrezagutzak detektatuko diren, jarduera honi hasiera emateko. Ostean, guztien artean gai bat edo bi proposatuko dute. Gai hori, umearen egunerokotasunarekin zerikusia izatea garrantzitsua izango da, batez ere, galdera ezberdinei erantzun bat bilatzerakoan. Bere ezagutzetatik gertu dagoen gaia aukeratzeko, umeak modu erraz batean, sormena erabiliz, galdera horri erantzun bat bilatuko dio. Ondoren, entrebista bat sortzeko galdera ezberdinak proposatuko dituzte. Hasiera batean umeek hori ez ulertzea gerta daiteke; momentu horretan irakasleak galdera bat proposatuko du, umearen parte-hartzea sustatuz.

Behin entrebista bat egin duten umeek, rol aldaketa bat emango da; hau da, kazetaria edo galderak egin dituen, erantzule bihurtuko da, eta alderantziz. Modu horretan, bestearen azalean ipintzen ikasten dute.

Antolaketari dagokionez, patioan garatuko da, espazio handiagoa izateko. Adinari dagokionez, 5 urteko umeekin burutuko da. Taldekatzeari erreparatuz, talde erdiak kazetariaren papera hartuko du eta beste erdiak erantzule papera.

Jarduera honen helburu nagusia, galdera bati erantzun bat bilatzea izango litzateke, estrategia ezberdinak erabiliz. Halaber, ahozko hizkuntza landuko da ariketa honetan. Beste aldetik, komunikazio tresnen erabilera sustatuko da. Horrez gain, gainerako haur eta helduen mezuen ulermenari arreta ipiniko zaio. Gainera, parte hartze aktiboa eta eztabaidatzen ikastea bultzatuko da.

Irakaslearen paperari dagokionez, moderatzaile moduan jardungo du eta ez da jolasean sartuko, bakarrik beharrezkoa denean. Ume batek galdera bati erantzun bat bilatzeko laguntza eskatuz gero, honek laguntza eskainiko dio, erantzuna eman barik.

Inputaren kalitateari dagokionez, pragmatikaren aldetik, umeak keinu eta mimika ugari erabiliko ditu kazetari zein erantzule paperarekin. Gainera, sintaxiaren barnean, perpaus gehienak gramatikalki zuzenak izatea sustatuko da. Horrez gain, semantikari dagokionez, irakasleak istorioa testuinguru hurbilean hasiko du. Azkenik, fonologiari erreparatuz, ahoskatze argia bermatuko da.

#### **EMAITZAK**



Lehen esan bezala, ariketa honetan lortutako emaitzak modu orokor eta labur batean adieraziko dira. Ostean, jarduera honen emaitzak modu garatuago batean ikusteko aukera emango da (Ikus 5. Eranskina).

IRIZPIDEA	BAI	EZ	BATZUETAN
Erantzuna emateko estrategia ezberdinak erabili ditu			X
Sortutako perpaus gehienak gramatikalki zuzenak izan dira	X		
Besteen mezuak ulertu ditu			X
Interakzio-egoeretan eraginkortasunez parte hartzeko gaitasuna izan du.	X		
Mezua sortzerakoan, egunerokotasunaz baliatu da (bere esperientziak, kontakizunak..)			X
Bestearen paperean sartzeko gaitasuna izan du (rol-aldaketa)	X		
Galderak zein erantzunak hizkuntz bakar batean eman dira (euskaraz)		X	

**i) Eguneroko interakzioak (asanblada, errutinak, eguneroko egoerak eta abar)**

Hasteko, esan beharra dago espontaneoki sortzen diren interakzioak, ahozkotasunean maila altua lortzeko ezinbestekoak direla. Ariketa hau/hauen bidez, nahi gabe ahozkotasuna lantzen da. Bide batez, eguneroko egoera edota errutinetan ahozkotasuna garatu egiten dela argi dago, baina horretarako irakaslearen lana oso garrantzitsua da.

Antolaketari dagokionez, 3 urteko umeekin garatuko da gela arruntean. Ez da materialik erabiliko eta behar den denbora erabiliko da egun ezberdinetan.

Ariketa hauen helburu nagusia, ahozko hizkuntza erabiltzea eta honetan jariotasuna izatea, parte hartze aktiboa bultzatzea, eztabaidatzen ikastea eta besteen aurrean askatasunez hitz egiten ikastea sustatuko da. Gainera, informatzeko eta informazioa jasotzearekin erlazioa duten komunikazio gaitasunak, baita ekintzak erregulatzeko funtzioarekin erlazioatutako komunikazio gaitasunak ere jorratuko dira; adibidez, umeek eztabaidatzen dutenean interakzioa sustatuko da.

Irakaslearen paperari dagokionez, honen papera oso garrantzitsua izango litzateke honako jarduera hauetan. Hasteko, hitza nola erabiltzen duen jakitea eta hitzaren

gainean kontrol handia izatea oso garrantzitsua da umearen ahozko hizkuntza sustatzeko. Irakasleak ikasle guztiak elkarrizketan parte hartzeko ardura du eta horretarako estrategia ezberdinak erabili beharko ditu. Horrez gain, ezinbestekoa da umei hipotesiak formulatzea, lortu dutena azaltzea eta lehen esan bezala, galderak egitea. Era berean, honen komunikazioak hainbat funtzio bete behar ditu: segurtasun afektiboa eskaini, ikasleen hizkuntza-eta berbaldi-ariketaren eredia ematea, haur guztiak eta bakoitzaren hizketan jartzea, haurraren parte hartzea kudeatu, eztabaidatzen eta gogoeta egiten laguntza eskaini eta abar. Jarraituz, irakaslearen papera oso motibagarria izan behar da eta umeen interesetatik abiatu beharko da. Horrela, interakzio positiboak garatuko dira.

### **EMAITZAK**

Lehen adierazi bezala, ariketa honetan lortutako emaitzak modu orokor eta labur batean adieraziko dira. Jarduera hau/hauetan lortutako emaitzak oso interesgarriak izan dira, nahiz eta 3 urteko gelan egin. Ostean, jarduera honen emaitzak modu garatuago batean ikusteko aukera emango da. (Ikus 6. Eranskina)

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>BATZUETAN</b>
Ahazkotasuna mezua adierazteko baliabide gisa erabili du.	X		
Interakzio-egoera espontaneoetan gainerako haurrek eta helduek kode anitzez igorritako mezuak arretaz entzuteko eta ulertzeko gaitasuna izan du.	X		
Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko oinarritzko estrategiak erabiltzeko gaitasuna izan du.			X
Bere esperientzia, bizipenak edo gorabeherak kontatzeko gaitasuna izan du.	X		
Mezua jarioz adierazi du.			X
Ahozko adierazpenetan, lexikoa, sintaxi-egiturak, erabili ditu (modu egoki edo desegoki batean)	X		

## 9. Ondorioak

Lehenik eta behin, esan beharra dago ariketa guztien emaitzak behin lortuta, hainbat ondorio atera ditzakedala, nahiz eta ariketa bakoitzean erabilitako irizpideak berdinak izan ez diren. Hasteko, ahozko hizkuntza barneratzeko ariketa egokiak eskaini behar direla, eta batez ere, adina eta testuingurua kontuan izan beharreko faktoreak izan behar direla; modu horretan, umearen ezagutzetatik gertu dauden jarduerak eskaintzerakoan, horiek burutzeko ahalmen handiagoa eta ondorioz, motibazio gehiago izango du, eta hori aurreko jardueren emaitzetan ikusi izan da. Jarraituz, umeen garapena ahozkotasanean egokia izan dela ikusi daiteke. Izan ere, mezua jariotasunez adierazten hasi dira. Halaber, arreta handiz jardun dute gehienetan eta horrek ahozkotasanaren garapenean oso garrantzitsua da.

Era berean, besteen mezuak pixkanaka-pixkanaka ulertuz joan dira eta H1 eta H2 erabiltzeko interesa handia izan dela ikusi izan da. Horrez gain, egunerokotasuna jarduera askotan erabili izan den faktorea izan da, umeek haien esperientzia, bizipenak edo gorabeherak kontatzeko gaitasuna izan dute eta. Gainera, haurrek erabilitako ahozko adierazpenetan, lexikoa, sintaxi-egiturak, erabili ditu (modu egoki edo desegoki batean) eta gehienetan irakaslearen papera moderatzailea izan denez, haiek prozedura mentalak eraiki behar zituzten jardueraren emaitza lortzeko eta horrek ahozkotasanaren garapenean asko laguntzen du.

Aurrekoan esandakoa kontuan hartuz, esan daiteke lortutako emaitzak positiboak izan direla (gehienetan) 3, 4 eta 5 urteko ahozkotasanaren garapenerako. Izan ere, hasieran proposatutako helburu asko bete izan dituzte. Hala ere, esan beharra dago, ahozkotasuna ez dela prozesu erraza; hau da, haurrek burututako jarduera hauekin ez dutela ahozkotasuna guztiz garatu, baizik eta ahozkotasanean aurrerapen bat eman dute (jariotasunez hitz egin, ahozkotasanaren estrategiak ikusi eta barneratu, eta abar).

Bestalde, haurren ahozkotasanaren garapenari dagokionez, nahiz eta 3 urteko umeek ahozkotasuna ia garatuta ez egon, ikusi daiteke nola espontaneoki sortzen diren interakzioetan parte-hartzeko interes handiagoa izan dutela (“dadoak” zer dioen ariketarekin konparatuz, adibidez). Horrez gain, 3 urteko umeek egunerokotasunarekin zerikusia duten ariketetan nahiz eta lexikoa, sintaxi-egiturak modu egoki batean ez erabili, horietan trebatu izan dira (gaizki egiteko beldurra alde batera utziz). Jarraituz, adin honetan ama hizkuntza (H1) alde batera uztea eta H2 erabiltzea zaila dela argi dago; hala ere, 3 urteko umeak H2 (euskara) erabiltzen saiatu dira.

4 urteko umeen ahozkotasanaren garapenari erreparatuz, esan beharra dago gela horretan, beste gelekina konparatuz, ume gutxiago daudenez, egunero ahozkotasanari

aurre egiteko errazagoa dela. Horrez gain, haur hauek ariketa hauetan erakutsi dutena, besteen mezuak ulertzeko gai izan direla, taldeetan lan egiteko kapazak direla (beste taldekideen ahozkoatasuna errespetatuz), mezua sortzerakoan, egunerokotasunaz baliatu direla (bere esperientziak, kontakizunak..) eta batez ere, ahozkoatasuna idatzizkoarekin lotzeko gaitasuna dutela da. Ondorioz, esan daiteke 4 urteko umeek garapen ona izan dutela hizkuntzarekiko.

Era berean, esan beharra dago 5 urteko umeek hobeto garatu dutela, besteek baino handiagoak izanda, ahozkoatasuna erabiltzeko estrategia ezberdinak ezagutu eta erabili dituzte eta (keinuak, intonazioa, eta abar). Horrez gain, askotan 2 hizkuntz ezberdinak erabiltzeko gaitasuna izan dute; adibidez, asmakizunen ariketan umeek hizkuntza batean (H1) ulertzeko eta beste batean (H2) azaltzeko gai ziren. Halaber, ahoz adierazitako testu errazak gehienetan ulertzeko gaitasuna izan dute. Azkenik, eztabaidatzeko gaitasuna hobetuz joan dira.

Lortutako emaitzak kontuan izanda, esan daiteke burututako ariketak baliagarriak izan direla Haur Hezkuntzako 2. Zikloan burutzeko, haurren ahozkoaren garapena eman da eta.

Bestalde, jardueren ebaluazioari dagokionez, esan beharra dago ikastetxearen eta batez ere, HH-ko 2.zikloko testuingurua kontuan hartu dudanez, ariketa gehienak haien ezagutzetatik gertu zeudela eta horrek lortutako emaitzetan nabaria izan da. Halaber, haientzat interesgarriak izan zitekeen ariketak kontuan hartu ditudanez, gustora burutzen ikusi ditut haurrak eta horrek ere eragin handia du ezagutza baten barneraketan.

Hala ere, esan beharra dago jarduera batean ( "dadoa-k" zer esaten digu?) ez nintzela konturatu 3,4 eta 5 urteko umeekin burutuko nuela eta adinaren faktoreak garrantzi handia duela (batez ere haien arreta mantentzeko, haientzat interesgarria izateko eta ondo burutzeko). Bertan ikus daiteke nola ariketa horretan 3 urteko umeek ez duten emaitza onak izaten. Ondorioz, jarduera hori burutzerakoan konturatu naiz ez zein garrantzitsua den umearen testuingurua eta umearen garapen hurbileko zona kontuan izatea ikaskuntza esanguratsua bultzatzeko asmoarekin.

Lortutako emaitzak kontuan izanda, bi ondorio garrantzitsu atera izan ditut. Hasteko, ahozkoatasuna modu "espontaneo" batean garatzerakoan, umeak ahozkoatasuna nahi gabe barneratzen du ahozkoatasuna modu esanguratsu batean, egunerokotasuneko egoerak kontuan hartuz, eta abar. Bestalde, jarduera gidatzaileetan, nahiz eta haurren interesetatik abiatu, umearen garapena "oztopatu" egiten dugu neurri batean. Izan ere,

ez dauka askatasun osoa (adibidez, umea gai baten inguruan hitz egiten behartzen dugunean).

Ondorioz, jarduera hauek burututa, interakzioaren garrantziaz jabetu naiz; hau da, interakzio egokienak bilatzeko, hizkuntza lantzeko erabilera aberatsak eta askotarikoak modu sistematikoan eta planifikatuan zehaztu eta gelaratu behar dira eta egoera ezberdinak erabili behar dira interakzioa ona izan dadin.

## **9.1 Muga eta hobekuntza proposamenak**

Hasteko, proiektu hau lantzerako orduan izandako mugei dagokienez, ahozketasuna ikastetxe batean gehienetan lantzen ez den alderdia izanda (San Bizente ikastetxean idazkerari ematen zitzaion garrantzi handiena, ahozketasuna alde batera utziz), hasieran ez nekien nola landu, haien zat esanguratsua izan zedila. Gainera, ikastetxe horretan ahozketasuna lantzeko ariketak ez direnez aurrera eramaten, ez nekien umeek nola erreagionatuko zuten horietara edota zer nolako parte-hartzea izango zuten. Halaber, prozesuan zehar zaila egin zait haien zat esanguratsuak ziren ariketak bilatzea. Izan ere, umeen aurrezagutzetatik abiatu beharra dago eta nik ez nituen ezagutzen (bakarrik 2 hilabete egon naiz). Ondorioz, bertako irakasleen laguntza behar izan dut.

Jarraituz, hezkuntzaren ikuspuntutik begiraturaz, ahozketasuna modu orokor batean garatzen dela argi dago, ez baitiete espontaneoki gertatzen diren interakzioei garrantzi handia ematen, ni egondako ikastetxean behintzat. Era berean, ama hizkuntza (gaztelania) ez da kontuan hartzen ikastetxe horretan, eta hori beste hizkuntzetan trebatzeko tresna baliagarria izan daiteke.

Horrez gain, lehen aipatu bezala, gaur egungo curriculum-ak (237/2015 Dekretua) ez du ahozketasuna osotasunean jorratzen, baizik eta modu globalean tratatzen du, ez baitu ahozketasunaz bakarrik hitz egiten (hizkuntzari ematen dio garrantzi handia). Ondorioz, ezinbestekoa egin zait Del Rio (2016) proposatutako gaitasunak kontuan hartzea. Era berean, Practicum III-ak hilabete bateko iraupena izan duenez, ez dut aukerarik izan ahozkoa nahi nuen moduan tratatzeko.

Bestalde, hobekuntza proposamenei erreparaturaz, ahozketasuna garatzeko baliabide ezberdinak eta berritzaileak behar direla uste dut; lehen esan bezala, gure pentsamendua garatzeko, errealitatea planifikatzeko, ulertzeko eta egoera ezberdinei aurre egiteko ezinbestekoa den tresna delako. Halaber, tresna honi gure egunerokotasunean bai etxean eta baita eskolan ere, merezi duen garrantzia eman behar zaiola deritzot.

Horrekin batera, irakasle batek interakzio ezberdinak sortzeko baliabideak erabili beharko lituzkela uste dut. Izan ere, ahozketasuna interakzio espontaneousi esker garatzen da askotan. Horrez gain, lehen esan bezala, ahozketasuna modu indibidual batean garatu beharko litzatekela uste dut ikastetxe horretan (San Bizente ikastetxea) ikusitako hainbat arrazoiengatik: umeak behin eroso sentitzen diren (irakaslearekin batez ere) gehiago hitz egiten hasten dira, publikoki hitz egiteko beldur direnean ez dute parte hartuko (gaizki espresatzeko beldur izatea gerta daiteke) eta abar. Horrez gain, ahozketasuna modu globalean lantzen bada, irakasleok ez dugu ume bakoitzaren beharrak kontuan hartzen eta horren ondorioz, ez diogu ahozketasunean trebea izaten laguntzen.

Azkenik, 237/2016 Dekretuak ahozko hizkuntzaren inguruan aipatutako kompetentziak/gaitasunak eta helburuak modu integral batean garatzea komenigarria dela uste dut. Modu horretan, ez zaio bakarrik idatzizkoari garrantzia emango (oraingoan gertatzen den bezala) eta ahozketasuna behar bezala barneratzeko aukera izango dute umeek.

## 10. Erreferentziak

- Barreña, A. & Garcia, I.(2009). “Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebkarrengan eta elebidunengan”, *Euskera* 54, 2-1. zatia, 603-638.
- Bigas, M. (2008), “En lenguaje oral en la escuela infantil”, in Bigas, M. & M. Correig, 2008, (arg.), *Didáctica de la lengua en la educación infantil*, Sínteis Educación: Madril.
- Bruner, J., Watson, R., & Premat,R. (1986). *El habla del niño: aprendiendo a usar el lenguaje*. Paidós: Bartzelona.
- Cabrera, M. C., Palmer, Í., & Nadales, M. (2015). *Hablar, leer y escribir: el descubrimiento de las palabras y la educación lingüística y literaria*. Visor.
- Castañeda, P. (1999). *El lenguaje verbal del niño: ¿cómo estimular, corregir y ayudar para que aprenda a hablar bien*. San Marcos: UNMSM. Fondo Editorial. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://intranet.comunidadandina.org/Documentos/BDA/PE-EDU-0003.pdf>
- Del Río, M.J (1993) *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo*, ICE-Horsori: Bartzelona.
- Del Río, M.J (2016). *Actividades comunicativas para enseñar competencia oral*. Bartzelona: Horsori Editoriala, S.L.
- Galván-Bovaira, Gràcia, M.; M.J.; Sánchez-Cano, M.; Vega, F.; Vilaseca,R. & Rivero,M. (2015). *Valoración de la enseñanza de la lengua oral. Escala Evaloe*. Graó: Bartzelona.
- Huarte,M. & J. Ozerinjauregi, (2012). “Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean”, in *Hizkuntzaz jabetzen (0-6)*. XVI. Jardunaldiak, Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbo. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2012/Interakzioaren%20garrantzia%20euskararen%20sarrera%20goiztiarrean.pdf>
- Hurlock, E. (2010). *Desarrollo del niño*. McGraw-Hill Interamericana. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://ebookcentral-proquest-com.ehu.idm.oclc.org/lib/biblioteca/reader.action?docID=3191915>
- Idiazabal, I., & Garcia, I. M. (2006). *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Euskara Errektoreordetzaren Sare Argitalpena.

- Ituero, B., & Casla, M. (2017) *¿Cómo empieza el lenguaje?: Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana*. Grao: Bartzelona
- López Valero, A. & Encabo, E. (2013). *Fundamentos didácticos de la lengua y la literatura (2.ª edición actualizada y revisada)*. Síntaxis: Madril.
- López-Ornat, S., Mariscal, S., Gallego, C., Gallo, P., Karousou, A., & Martínez, M. (2007). La evaluación del desarrollo comunicativo y lingüístico mediante la versión española de los inventarios MacArthur-Bates. *Psicothema*, 19(2).
- Mariscal, S. (2010). *El desarrollo psicológico a lo largo de la vida*. Mc-GrawHill: Madril.
- Mendoza, A. (2007). *Materiales literarios en el aprendizaje de lengua extranjera*. ICE Bartzelonako Unibertsitatea.
- Navarro, M. (2003). Adquisición del lenguaje. El principio de la comunicación. *Cauce*, 26, 321-347. Honako webgune honetatik berreskuratua: [https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/13138/file\\_1.pdf?sequence=1](https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/13138/file_1.pdf?sequence=1)
- Novoa, A. B., Otero, A., García, A., & Casado, M. (2011). *Me comunico con el mundo: desarrollo del lenguaje*. Nova Galicia Edicións.
- Reguero, U. (2017). Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza. 2017/18 ikasturteko Haur Hezkuntza Gradu 3. mailako apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.
- Ruiz- Bikandi, U. (2009). "Ahozko hizkuntza irakastea", in *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*, UPV/EHU, Bilbo.
- Sainz, M., Ozaeta, A., & Garro, E. (2009). Ahozko hizkuntza lantzen. Haur Hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino. *Hik Hasi*, 140 .
- Salvador, M. B. (1996). La importancia del lenguaje oral en educación infantil. *Aula de innovación educativa*, 46. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://logopedicum.com/wp-content/uploads/2017/02/la-importancia-del-lenguaje-oral-en-educacion-infantil.pdf>
- Sánchez-Cano, M. (2001). *Aprendiendo a hablar con ayuda*. Editorial Milenio: Lleida



- Snow, C. E., Tabors, P. O., Nicholson, P. A., & Kurland, B. F. (1995). SHELL: Oral language and early literacy skills in kindergarten and first-grade children. *Journal of Research in Childhood education*, 10(1), 37-48
- Tough, J. (1989). *Lenguaje, conversación y educación: El uso curricular del habla en la escuela desde los siete años*. Visor: Madrid.
- Vilà, M., & Castellà, J. M. (2014). *10 ideas clave. Enseñar la competencia oral en clase. Aprender a hablar en publico*. Barcelona: Graó

## 11. Eranskinak

### 1. Eranskina (“asmakizunak” jarduera)

Jarduera honetan erabilitako txartelak gabonen ingurukoak izan dira. Izan ere, klasean gai hori ari ziren ikasten:



Umeek asmakizunak uler ditzaten, haientzat ezagunak ziren hitz errazak erabili ditut; adibidez, gabonetako zuhaitza zela asmakizuna jakiteko honako hau esan diet: gabonetan gure etxean apaintzen dugu eta olentzerok bertan uzten ditu opariak.

Jarduera hau burutzerako orduan, umeei haientzat ezagunak ziren bi hizkuntzak erabiliko ditugula esan diet (euskara eta gaztelania). Egia esanda, berehala ulertu izan dute mezua; mahatsen asmakizuna izan ezik. Kasu honetan, ez dute ulertu urtezahar-gau hitza. Ondorioz, berehala galdetu didate hori zer den eta gaztelaniaz nola esaten den hitz hori esan diedanean, berehala ulertu eta asmakizuna lortu izan dute.

Horrez gain, hitz egitea gehien kostatzen zaien umeei galdetzen saiatu naiz, haien parte hartzea sustatzeko asmoarekin eta horietako bik lortu izan dute asmakizunaren hitza asmatzea.

Halaber, jarduera hau burutu ostean, honako ohar hauek hartu ditut:

- Umeak mezua ulertzeko gai izan dira, asmatu beharreko hitzak gelan irakatsitako/ikasitako kontzeptuak direlako.
- Ume batzuk ez dira izan euskaraz asmatu beharreko hitza transmititzeko (arbol de navidad esan dute gabonetako zuhaitza esan beharrean).
- Komunikatzerako orduan, ez dira gorputzeko hizkuntzaz baliatu.

- Gaztelaniaz hobeto moldatzen dira gehienetan edo beste modu batera esanda, erosoago sentitzen dira hizkuntza horretan.
- Nabaria izan da ume baten parte-hartzea euskaraz, bere ama-hizkuntza delako.
- Hitza interpretatzea irudia ikusi gabe askotan zaila egin zaie nahiz eta asmakizuna hiru aldiz errepikatu. (kontzeptua hitz batekin erlazionatzea).

## 2. Eranskina (“Istoria bat sortuz” jarduera)

Jarduera honetan material bisualik erabili ez ditudanez, hasieran jardueraren helburua ez dute ulertu; hau da, ez dute ulertu nola burutu behar duten istorioa. Bertan konturatu naiz agian jarduera ez dela egokia haiek ez dutelako bisualki ikusten.

Hala ere, istorioa sortzen hasi naiz: bazen behin Martin izeneko ume bat San Bizente ikastolara joaten dena. Momentu horretan, batek honako hau esan dit: eta zergatik etortzen da ikastolara? Eta nik erantzun diot: zuk asmatu zergatik. Umea berehala hasi da esaten ume hori ikastolara joaten dela bere lagunekin jolasteko eta ondo pasatzeko.

Ondorioz, besteek ume honen mezua ulertu eta banaka istorioaren beste zati bat hasi dira asmatzen nire laguntzarekin (nik galdera ezberdinak eginez eta laguntza eskainiz).

Azkenean honako istorio hau sortu dugu guztion artean:

Bazen behin Martin izeneko ume bat, San Bizente ikastolara joaten dena. Martin ikastolara joaten da lagunekin jolasteko eta ondo pasatzeko. 5 urte ditu eta Oionen bizi da. 3 urteko gelan arreba bat dauka. Berarekin asko jolasten da. Bere irakaslea Emma da. Igeri egitea asko gustatzen zaio. Bere aitarekin igeri egiten du. Gustuko duen futbol-taldea La Oyonesa da.

Istoria amaitzerakoan, nik berriro errepikatu izan dut eta ea zeozer gehiago gehituko zuketen galdetu diet eta haiek ezetz esan didate. Ondorioz, istorioari amaiera eman diogu.

Halaber, jarduera hau burutu ostean, honako ohar hauek hartu ditut:

- Umeak bere egunerokotasunetik kanpoko esaldiak erabiltzeko ez dira gai.
- Istoria bat bakarrik sortzeko ez dira gai.
- Euskaraz modu autonomo batean jarduteko gai izan dira askotan (nahiz eta laguntza eskatu duten).

- Istorioa garatzeko eztabaidatu dute.
- Esaldi oso laburrak erabili arren, erabilitakoak gramatikalki zuzenak izan dira.
- Asko kostatu zaie istorioari hasiera ematea, lehen esan bezala, ez baitzuten irudirik (ipuinetan gertatzen den bezala, adibidez).
- Sortutako istorioak ez du kohesio ezta koherentziarik ere ez.
- Horrelako istorioa ez zutela sortuko uste nuen. Izan ere, haiek ezagututako istorio guztiek hasiera, korapiloa eta amaiera bat dute. Horrela konturatu naiz, agian adin horretarako ez zela jarduerarik aproposena.
- Nahiz eta egunerokotasuneko mezuak erabili, sormena handiz jardun dute (adibidez, ume batek honako hau esan du: “yo si que lo conozco, es mi vecino”).

### 3. Eranskina (“Hitzak silabetan zatitu” jarduera)

Jarduera honetan erabiliko diren txartelak, oihaneko animalien ingurukoak izan dira. Izan ere, klasean gai hori ari ziren ikasten:



Lehen aipatu bezala, lehendabizi haientzat ezagunak eta errazak diren animalien izenak zatitzeko eskatu diet. Taldekatzeari dagokionez, gehien kostatzen zaien umeei gutxiegi kostatzen zaien umeekin taldekatu ditut (haien artean laguntza emateko asmoarekin).

Jarduera hau burutzerako orduan, hitzak zatitzeko eta ozenki hori adierazteko gai izan dira (2 ume izan ezik). Izan ere, ikasturte osoan zehar ariketa hau burutu dute. Halaber, taldeka modu on batean lan egin dute.

Hala ere, esan beharra dago hitz zailagoak zatitzeko proposamena egin dudanean (lehoia, adibidez), zailtasun handiak izan dituzte hori egiteko eta nire laguntza bilatu dute.


Ostean, hitzak arbelean idazteko aukera eman diet (nik lehendabizi hitza arbelean idatziz). Hori burutu eta gero, esan beharra dago batzuetan ondo aritu direla.

Halaber, jarduera hau burutu ostean, honako ohar hauek hartu ditut:

- Hitzak silabetan zatitzeko gai izan dira.
- Ahozkotasuna erabili dute hitzak silabetan zatitu dituztenean.
- Hitzak zatitzeko txaloak erabili dituzte.
- Taldekideen artean eztabaidatu dute eta haien artean lagundu dira.
- Ahozkotasuna idazkerarekin lotzen hasi dira.

#### 4. Eranskina (“Dadoak zer esaten digu?” jarduera)

Jarduera honetan, umeentzat esanguratsuak diren gai/gauza/ideia ezberdinak hartu izan dira: zuhaitz bat, hondartza bat, dortoka bat, etxe bat, baloi bat eta liburu bat.



Jarduera hau burutzerakoan, 3,4 eta 5 urteko umeekin egiterakoan, konturatu naiz zein garrantzitsua den bakoitzaren ezagutzak kontuan hartzea, 3 urteko ume batentzat zuhaitz edo hondartza baten inguruan hitz egitea zailagoa izan daiteke 4 edo 5 urteko umeekin konparatuz.

Ariketa aurrera zihoan heinean, umeak oso ondo moldatu dira eta sormen handiz jardun dute. Honako hauek izan dira haiek sortutako esaldiak:

- El árbol de mi abuelo tiene manzanas (4 urte)
- Donde voy a jugar con mi hermana veo muchos arboles que son iguales que ese (5 urte)
- Cuando yo fui a la playa cogí muchas conchas (4 urte)
- No me gusta la playa porque me mancho con la arena (5 urte).
- En la playa viene la ola y me pega (4 urte)
- Nire dortoka Txiki deitzen da (4 urte).
- En la tele he visto una tortuga muy grande (3 urte)
- Esa es como la casa de mi prima Isabel (4 urte).
- Pues mi casa es más grande que la tuya porque tiene 3 pisos (5 urte).
- Qué fea, no me gusta (3 urte).
- Ese balón es para mi (4 urte)
- Ese de txanogorritxu (3 urte)
- Ni irakurtzen dakit (5 urte)

Bestalde, jarduera hau burutu ostean, honako ohar hauek hartu ditut:

- Gehienetan, mezua ondo interpretatu dute (argazkia erabiliz).
- Ahozkotasuna erabili dute baina gehienetan gazteleraz.
- Askotariko hizkuntzaz baliatu dira.
- 3, 4 eta 5 urteko umeek produzitutako mezuak oso ezberdinak izan dira.

## 5. Eranskina (“ Entrebista eta role-playing” jarduera)

Jarduera hau burutu baino lehen, asanbladan hitz egin dugu 3 gai aukeratu ahal izateko. Horretarako, umeen aurrezagutzak detektatu eta konprobatu izan dut entrebista bat zer dela dakitela (haientzat entrebista bat da galdera batzuk egitea eta beste batek erantzutea). Halaber, laguntza eskaintzeko asmoarekin, ordenagailuaren bidez entrebista baten adibidea jarri diet.

Ostean, nik gai ezberdinak proposatu dizkiet eta haiek honako gai hau aukeratu dute: jolasak. Haientzat galdera batzuk sortzea oso zaila denez, nire laguntzarekin

honako galdera hauek sortu ditugu: zein da gehien gustuko duzun jolasa? Norekin jolasten zara patioan? Zertara jolasten zara patioan? Zure lagunari zein jolas gustatzen zaio? Asteburuan asko jolasten zara?

Jarduera burutzerakoan, konturatu naiz ume batzuei asko kostatzen zaiela galdera bati erantzuna bilatzea, nahiz eta galdera ulertu. Halaber, rol aldaketa proposatu dudanean, azkenengo umeek lehenengo umeen erantzunaz baliatzen ziren eta ez zioten buruari buelta bat ematen.

Bestalde, jarduera hau burutu ostean, honako ohar hauek hartu ditut:

- Gehienetan erantzuna emateko estrategia ezberdinak erabili ditu umeak.
- Galderak ulertzeko gaitasuna izan dute.
- Egunerokotasunaz baliatu dira askotan.
- Nahiz eta galderak euskaraz eman, produzitutako mezua batzuetan gazteleraz ematen zen.

#### 6. Eranskina (“Eguneroko interakzioak” jarduera)

Hasteko, esan beharra dago ariketa hau ez dela momentu eta leku batean burutu, baizik eta espontaneoki sortutako interakzioak izan dira. Interakzio hauek PRACTICUM III-an zehar eman dira. Ariketa honi esker, hainbat ohar ezberdin lortu izan ditut:

- Asanbladan, adibidez, haiek nahi dutenaren inguruan hitz egiteko aukera eman diedanean, haien esperientzia, bizipenak edo gorabeherak kontatzeko gaitasuna izan dute ahozkoa erabiliz.
- Askotan gramatikalki zuzenak ez diren esaldiak esan arren, seguru sentitu dira.
- Mezuak jarriotasun handiz adierazten hasi dira.
- Beste umeen aurrean hitz egiteko gai izan ez diren umeek, interakzioa bilatu dute nik haiengan interesa izan dudala ikusterakoan.
- Interakzio-egoera espontaneoetan gainerako haurrek eta helduek kode anitzez igorritako mezuak arretaz entzuteko eta ulertzeko gaitasuna izan du.
- Ahozkotasuna komunikatzeko erabiltzen hasi dira.
- Errutinetan, behin eroso sentitu diren, parte-hartzen hasi dira.
- Umearengan esanguratsuak diren gaiak kontuan hartuz, haiek eroso sentitu eta ahozkotasuna komunikatzeko baliabide erabiltzen hasi dira.

- Espontaneoki sortzen diren interakzioak umearengan garrantzi handia izaten du (gero berak zuregan konfiantza izateko eta hitz egiten hasteko).